



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko maiatzaren 19a

39. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, ordenagailu nagusi berriaren erosketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Bidaierien Garraioari buruzko Planaren proiektuaren gainekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Erriberan ozonoaren maila igotzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Aralarko guardetxe berriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Udal Funtzionarioen Montepioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Lizarran eginen diren Karlismoari buruzko IV. Jardunaldiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak proposatu dituen eskualde-eragineko jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, zerbitzu publikoen kalitate planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Abeltzainen Sektorearentzako Plan Estrategikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, “Sección clonal y sanitaria de la vid y patrones de vid en Navarra” izeneko ikerkuntza proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Familia-bitartekotzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Mendekotasunaren Legea indarrean sartu zenez geroztik mendekotasun-graduak zehazte aldera egin diren balorazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Abeltzainen Sektorearentzako Plan Estrategikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, arrisku kimikoen osagarria dela-eta administrazioaren isiltasuna jaso duten eskabideei eta gora jotzeko errekurtsoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Txikizkako Merkataritza Modernizatzeko Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, 2015era bitarteko Energia Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Mendekotasunari Aurrea Hartzeko Planaren egungo egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).

- Galdera, Ijitoen Arreta Integralerako Planaren egungo egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Nafarroako Azpiegiturei buruzko 2008tik 2011ra bitarteko Plan Orokorrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Gazteen Emantzipazioari buruzko Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, Corellan sartzeko biribilgunean paratutako eskulturen gastuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, Riegos de Navarra aldi baterako enpresen batasunak NA-6120 errepedeko obrak direla-eta erantzun ez izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Ultzaman, Odietan, Atezen eta Lantzen ur-murritzketarik egon ez dadin Gobernuak hartu dituen neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Bideko Autobiaren obra, itzaleko bidesariaren bidez finantzatu baita, eman ote den jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, Nazio Batuen Erakundearen GAP (Global Action Plan) Programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, baztertzaleak diren edo pertsonen duintasuna urratzen duten publizitate-edukiak hedabide sozialetan argitaratzearen aurkako neurriak sustatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, 117/2010 Foru Aginduaren bidez hezkuntza itunak aldatu eta/edo luzatzean Hezkuntzako kontseilariak Ikuskapen eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiaren eskumenak bere gain hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- Galdera, Familiei Laguntzeko Foru Lege proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, CCOOri eta UGTri zuzenean nahiz “VITRA Cooperativa de Viviendas” eta “Plazaola Gestión Integral, S.L.” enpresen bidez emandako etxebizitza babestuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, farmakoak garatzen jardunen duten hamar bat enpresa sortu izateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, ordenagailu nagusi berriaren erosketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du ordenagailu nagusi berriaren erosketari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 10eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du ordenagailu zentral berri bat erosteari buruz (PES-594/10). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Hasteko, alde zuzeneko gai gisa, argitu beharra dago ez dela zehazki ordenagailu zentral bat erosi Nafarroako Gobernu Informatikako Zentrorako; izan ere, 2010ean, hauxe egin da: IBMrekin dagoen kontratu orokorra berritu, hain zuzen ere Informatikako Zentroko informatika-ekipoen erabilerrako, mantentzerako, lizentzietarako, azpiegituretarako eta softwarea eta hardwarea erosteko.

Kontratu orokor horrek berekin ekarri du ekipo horiek berritzea (batzuk dira, ez soilik "ordenagailu zentral" bakar bat), konputazio-ahalmena areagotu eta hobetzeko, horixe baita kostuaren egiazko

parametroa. IBMrekin eginiko kontratu orokor hori PIN SL enpresa publikoak egin du, lau urteko epe baterako eta honako kostuarekin:

Urtea	Zenbatekoa eurotan (BEZa kanpo)
2010	2.069.112
2011	2.244.986
2012	2.438.055
2013	2.652.846
Guztira	9.405.000

Kontratu hori PIN. SL enpresak egin du, urtero Modernizazio eta Administrazio Elektronikoaren Zuzendaritza Nagusiak egiten dion enkargua betetzeko, hain zuzen ere Nafarroako Gobernu Informatikako Zentroa kudeatzeko eta ustiatzeko zerbitzurako.

Informatikako Zentroa kudeatzeko enkargu horren kargurako kontusaila hauxe da: 2010eko ekitaldiko gastuen aurrekontuko 070005-05500-2273-467900 kontusaila, "Informatikako Zentroa eta ordenagailu zentralerako zerbitzuak kudeatzea".

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betez.

Iruñean, 2010eko irailaren 29an

Lehendakaritza, Justizia eta Barneko jarduneko kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako Bidaiarien Garraioari buruzko Planaren proiektuaren gainekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Nafarroako Bidaiarien Garraioari buruzko Planaren proiektuaren gainean.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 10eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du (PES-595) jakiteko ea Nafarroako Bidaiari Garraioari buruzko Plan Integrala egiteko kontsulta egin ote zaien garraioaren sektoreko profesionalak. Hona Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Bidaiarien Garraioari buruzko Plan Integralaren funtsezko helburua da Nafarroako Foru Komunitateko herritarrei hirien arteko garraio publikoko sistema bat ematea, efizientzia eta kalitate baldintza onenekin.

Horretarako, ikerketa lan handia egin da arloari buruz, hain zuzen ere garraio sistema horren balizko eskaeraren berri izateko, bai eta egungo erabiltzaileek haren kalitateari buruz daukaten

pertzepzioaren berri izateko ere. Hori guztia garraio publikoko sistemaren egungo eskaintzarekin alderatu da.

Konparaziozko analisi horretatik abiatuta, atzemandako gabezia eta akatsak zuzentzeko –eta, azken batez, egungo sistema hobetzeko– jarduketaren proposamenak berrikusten ari dira.

Egungo emakida-hartzaileen ekarpenak beraien Garraio Zuzendaritza Nagusiari egungo eskaintzari buruz emandako informazioaren bitartez lortu ditugu.

2010eko maiatzean, Garraio Zuzendaritza Nagusiak informazioa eman zion Nafarroako Errepideko Garraio eta Logistika Enpresaburuen Elkarteari –zeinak bidaiarien sektoreko profesionalak biltzen baititu– planaren egoerari buruz, eta Estellerrirako eginiko diseinua aurkeztu zitzaion, haren berrikuspena aurreratuxeagoa baitzegoen, eta elkarte horren ekarpen eta iradokizunak jaso zituen. Ondoz ondoko bilera batzuk programatu dira elkarteari eskualdeen diseinuak banan-banan aurkezteko.

Plan hori, behin amaitu ondoren, jendaurrean jarriko da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko irailaren 22an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Erriberan ozonoaren maila igotzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Erriberan ozonoaren maila igotzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 10eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak galdera bat egin du Erriberako ozono mailak igo izatearekin lotutako gai batzuei buruz (PES-597). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Ozonoa bigarren mailako kutsagai bat da, zeina osatzen baita nitrogeno-oxidoek eta osagai organiko lurrunkorrek –ozonoaren aurrekariak deitzen zaie, orokorrean– eguzki-argiaren eraginpean erreakzionatzen dutenean. Hori dela eta, ozono-kontzentrazio handienak udan gertatzen dira, eguzki-erradiazio handia eta tenperatura altuak daudenean. Ozonoaren aurrekarien isurketa dakarten jarduera nagusiak trafikoa eta industria-jarduerak dira, bai eta, orokorrean, erregai fosilen konbustioa dakarren edozein jarduera ere.

Orokorrean, lurrazalean ozono kontzentrazioak gertatzen direnean, une bakoitzeko ekarpen eta deuseztatze edo suntsitze prozesuen arteko balantzearen ondorioa dira. Ekarpen prozesuen artean, honakoak daude:

1) Ozonoa bertan osatzea, iturri naturalek (konposatu organiko lurrunkorak, COV deitutakoak) eta antropogenikoen (NOx eta COV deitutakoak) isuritako aurrekarien eraldaketa fotokimikoen ondorioz. Erreakzio horiek, eguzki-erradiazioak aktibatzen dituztenean, eguneko eta urtaldiko ziklo bereizgarriaren arabera izaten dira (jarduera fotokimiko handiagoa eguneko ordu zentraletan eta urteko hilabete zentraletan).

2) Ozono ekarpenak inguruko esparruetatik iristea, aire-mugimenduek eragindako garraioaren ondorioz, bai dimentsio horizontalean bai bertika-

lean (esate baterako, goi-geruzetatik heldutako fumigatzea).

Deuseztatze edo suntsitze prozesuei dagokieraz, honakoak dira garrantzitsuenak:

1) Oxidazio erreakzio kimikoak, non ozonoak konposatu oxidatzaile gisa baitihardu.

2) Lurraren gaineko lagapen-prozesuak

3) Kutsagaiak aire-sailetik kanpora garraiatzea, mugimendu atmosferikoen ondorioz, bai dimentsio horizontalean (adbezkioa), bai bertikalean (turbulenzia mekanikoa edo/eta konbektiboa, eta injekzio/garraio bertikala, aire-masen arteko interakzioaren ondorioz nahiz bortxatze orografikoen ondorioz).

Horretaz guztiaz gainera, kontzentrazioak alda daitezke nahaski-geruzaren (lurrazalarekin kontaktuan dagoen atmosfera-geruza, non kontaktu horrek induzitutako turbulenzia termiko eta mekanikoak airearen konposizioa gisa erlatiboki homogeneoan mantentzen baitu) sakonera-aldaketei erantzuteko. Nahaski-geruza horren altuera hori gutxitzeak, inbertsio termikoko egoeretan gertatzen den bezala, nabarmen areagotu ditzake kontzentrazioak, nahaskiaren bolumena gutxitzearen ondorioz.

Bestalde, ozonoaren kimika nabarmenki ez-lineala da, zeren COVak/NOx erlazioa zein den alde batera utzita, NOx-en gutxitze batek ozonoaren igotzea edo jaistea ekar baitezake, eta gauza bera gertatzen da COVekin. Oro har, COV-en emisio-iturrietatik hurbil dauden eremuak COV mugatuak dira, hau da, NOx kontzentrazioen aldaketek ez dute aldaketa garrantzitsurik eragiten ozonoaren produkzio garbian; urrunen daudenak, berriz, NOx mugatuak dira, hau da, zona batzuk dira non ozonoaren sorkuntza sentibera baita NOx kontzentrazioen aurrean.

Horrela, hiri jatorria duen kutsadura-luma baten garraioan une batean edo bestean COV-en eraentza mugatu batetik NOx-en eraentza mugatu batera pasatzen da. Ozono kantitate handienak trantsitu horretan gertatzen dira, eta moduren batean landa eremuen artean geografikoki eta kimikoki tartekoak diren puntuekin identifikatzen dira. Orokorrean, jotzen da hiri arlo batean jaurtitako NOx kopuruak haizebean osaturiko ozonokopurua determinatzen duela, behin fotokimika osatu denean; COV-en kopuruak, berriz, ozonoa-

ren osaketaren tasa edo hasierako erritmoa determinatzen du.

Prozesu horiek guztiak eskala guztietan gertatzen dira: mikroeskalatik hasi eta eskala orokorrera arte, tokiko eskalatik eta erregioko eskalatik pasatuta, eta horiek guztiak elkarren gainean jartzen dira azaleraren puntu bakoitzean, eta batzuk besteen gainean nagusitzen dira urteko sasoiaren arabera, atmosferan nagusi diren baldintzen arabera eta kasuko puntuaren kokapen geografikoaren arabera. Kokapen geografiko horrek baldintza klimatiko, meteorologiko eta orografikoak dakartza berarekin, eta baldintza horiek eragin erabakigarria du aurreko prozesuak agertzera emateko moduan, eta inplikatzeko du, halaber, hasierako baldintzak determinatzen dituzten emisio-iturriko posizio erlatibo bat izatea (esate baterako, emisioen ingurune batean kokaturiko puntu bat baldin bada, edo haietatik urrun baldin badago; eta kasu horretan, halaber, haien haizebean egotearen ala ez egotearen arabera, eta dagoen distantziaren arabera, egoera desberdinak eraginen ditu). Orografiak eginkizun garrantzitsua dauka horretan guztian, eta eragina dauka garraio- eta dispersio-prozesuetan, eta haiek gidatu ere egiten ditu. Eragin hori bereziki agerikoa da Europa hegoaldeko erregioetan eta urteko hilabete zentraletan, orduan gertatzen baitira ozono-maila handienak. Iberiar Penintsulan, urtearen garai horretan, baldintza antiziklonikoak izaten dira nagusi, eta terrenoko aldaketan ondoriozko tenperatura gradienteez sorrarazitako aire-masen zirkulazioak sartzen dira jokoan, terrenoan gertaturiko aldaketan ondorioz (lurra - itsasoa, mendi-mazelen berotze ezberdina, orientazioaren araberrakoa, eta abar). Gradiente horiek brisak garatzea dakarte kostaldeetan, eta

haize orografikoak ere bai, zeinak askotan akoplatu eta elkar indartzen baitute. Askotan, zirkulazio horiek indartzen dira, gainera, penintsularen erdi aldean baja termiko iberiarra garatzen delako. Horren guztiaren emaitza da beren burua antolatzen duten eta egunetik egunera finkatzen diren zirkulazioen multzo bat, non orografiarekin lotutako konbergentzia-lineak dauden, arlo desberdinen arreak mugatzen dituztenak, eta aire-masa isurien arloetatik garraiatzeko ohiko ibilbideak.

Zirkulazio horiek, gainera, jarraitasun bertikala dute, "birzirkulazioko gelaxkak" osatuz, goranzko bideekin konbergentzia-lineetan, eta bitarteko arloen gaineko konpentsaziozko subsidentziak (subsidentzia antiziklonikoak indartua) erraztutako behe-ranzko bideekin. Baldintza antiziklonikoek zenbait egun irauten dutenean, ohikoa izaten da dinamika horren azpian aire-masa gradualki ozonoz kargatzea eta maila gero eta handiagoak erregistratzea (aire masak egun bateko "memoriari eusten dio" hurrengo egunerako). Egoera horiek, orokorrean, amaitzen dira atmosfera garbitzen duen fronte-sistema bat iragaten denean, edo ezaugarri fisiko-kimiko desberdinak dituen aire-masa bat sartzen denean.

Inguruabar horiek guztiek berekin dakarte Europa mailan gertatzea www.eea.europa.eu/maps/ozone/map mapan ageri denaren antzeko egoera bat, non ikusten baita ez dagoela zuzeneko erlazioz foku zehatz eta oso lokalizatu-ekin, hain zuzen ere erregio mailako arazoekin hobeki ezkontzen den eszenarioa sortzen baita.

Abenduaren 26ko 1796/2003 Errege Dekretuak, giroko airearen ozonoari buruzkoak, honako xede-balioak ezartzen ditu:

Xede-balioa	Balioa	Honela neurtua	Helburua/Gauzatu beharreko ekintzak
Informazioko atalasea	180 $\mu\text{g}/\text{m}^3$	Orduen batez bestekoa	Organo eskudunek jendeari eta estatu kideei informazioa eman behar diete, hileroko kopuru horiek gainditzen diren kasu guztiei buruz.
Alertako atalasea	240 $\mu\text{g}/\text{m}^3$	Orduen batez bestekoa	Organo eskudunek jendeari eta estatu kideei informazioa eman behar diete, hileroko kopuru horiek gainditzen diren kasu guztiei buruz.
Gizakien osasuna babestea	120 $\mu\text{g}/\text{m}^3$	Zortzi orduen batez bestekoa	Balio hori ezin izanenez litzateke gainditu urtean 25 egunetan baino gehiago, hiru urteko batez bestekoa.

Nafarroan ez da sekula alertako atalasea gainditu, eta azken lau urteetan –2007, 2008, 2009 eta 2010ean–, ez da sekula informazioko atalasea gainditu.

Giza osasuna babestu beharreko balio objektiboari dagokionez, Erriberako neurketa-estazioetan, azken urte hauetan, gainditu behar ez den balioaren, 120 $\mu\text{g}/\text{m}^3$, 25 eguneko atalasea gainditu izan da. Nolanahi ere, adierazi beharra dago

atalase horren betetzea lehenengoz 2012an neurtu beharko dela, aurreko hiru urteetan –2010, 2011 eta 2012– atalasea gainditu deneko egunen kopuruaren batez besteko gisa. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, egunero, balio objektiboa gainditzeari buruzko informazioa ematen du webgune honetan: http://www.navarra.es/home_es/Temas/Medio+Ambiente/Calidad+del+aire.

2010eko kanpainan, gaur arte, giza osasuna babestu behar izateko balio objektiboa Erriberako hiru neurketa-estazioetan gainditu da:

Neurketa-estazioa	Gainditzeak
Arguedas	34
Funes	31
Tutera	44

24 egunetan, gainera, gainditzea hiru estazioetan gertatu da, kontuan izanda hirurak ez daudela posizio erlatibo berean eremuko foku emisore nagusiei dagokienez. Horrek adierazten du ez dagoela erlazio lineal bat ozono-mailen eta hurbileko iturrietatik heldu diren aurrekarien emisioaren artean, zeren eta eskala handiagoko kutsatzaileen dispersio- eta garraio-mekanismoak sartzen baitira jokoan. Maila objektiboa gainditzea eragiten duena foku jakin bat baldin bada, gainditzea soilik haren haizebean kokaturiko estazioetan gertatuko litzateke.

Laburbilduz:

1.- Ozono troposferikoaren kimika atmosferikoa oso konplexua da, eta ozonoaren kontzentrazioek, zoruaren mailan, faktore orografiko eta klimatikoaren eragin handia dute.

2.- Ez dago arrazoi bakarra Erriberan osasuna babestu beharreko helburua gainditzea azalduko duena, baina ez dago erlazio zuzenik hurbileko foku emisoreen eta ozono mailen artean.

3.- Osasuna babestearen helburua udan gainditzea gauza orokorra da Europa hegoaldeko eta arku mediterraneoko herrialdeetan, eta horrek gogoeta orokor bat egitea eskatzen du.

Hori jakinarazten dut Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko irailaren 27an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Aralarko guardetxe berriari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Aralarko guardetxe berriari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 10eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Aralarko guardetxe berriari buruz (PES-598). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Une honetan, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua eraikuntza-proiektuaren berrikuspena amaitzen ari da. Espero izatekoa da hurrengo bi-hiru hilabeteetan hura onetsi ahal izatea. Bestalde, departamentuak jada eraikin berria

eraikitzeke erabiliko diren espezie desberdinetako zurak badauzka. Zur hori eraikuntzarako erabiltzeko prestatuta dago.

Oraindik ere ez da aurreikuspenik egin obraren hasierari buruz, baina Departamentuak obra egiteko borondateari eusten dio, zeren eta oraindik ere jotzen baitu proiektua interesekoa dela, bai Aralar mendiko elementu berezia den aldetik, bai zura eraikuntzan erabiltzeko erakusgarri gisa, hain zuzen ere departamentuak modu erregularrean sustatu duena.

Amaierako aurrekontua behin betiko aurrekontua onestearen baitan dago. Hori dela eta, oraindik ere ezin da zifra bat eman.

Oraindik ere ez da ezagutzen proiektu horren finantziazioa bilduko duen kontusaila. Nolanahi ere, inbertsio errealean kapituluari egokituko zaio.

Hori jakinarazten dut Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko irailaren 28an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Nafarroako Udal Funtzionarioen Montepioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Txentxo Jiménez Hervás jaunak galdera egin du Nafarroako Udal Funtzionarioen Montepioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 10eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak galdera egin du Nafarroako Udal Funtzionarioen Montepioari buruz (PES-599/10). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.- Barañaingo Udalaren montepioaren finantziazioaren kostuari dagokionez, honakoa esan beharra dago:

A) Banaketarako irizpideak Udal Funtzionarioen Eskubide Pasiboen Erregelamenduaren 16. artikuluan ezarrita ageri dira –erregelamendu hori Foru Kontseilu Administratiboaren 1947ko maiatzaren 31ko erabakiz onetsi zen–. Bada, hartan honakoa esaten da, hitzez hitz:

“Montepioaren diru-sarreraren eta gastuen arteko defizita berdintze aldera, banaketa pasibo bat eginen da Nafarroako udalen artean, ondoko araei jarraikiz:

a) Idazkariei eta fakultatiboek (sendagileak, praktikanteak, albaitariak eta botikariak) dagokien defizita kalkulatzeko, defizit hori igortzen den urteko otsailaren 1ean ofizialki deklaraturiko biztanleria datuak hartuko dira aintzat, eroldako datuak berrikusita.

b) Udal gordailuzainei, nomina eta plantillako emaginei eta gainontzeko administrazio funtzionarioei eta menpekoei dagokien defizita udalei igorriko zaie, duten langile kopuruaren arabera.

Banaketa horretatik salbuetsita egonen dira udalak baldin eta euren barne araubideko erregelamenduan esleiturik badituzte funtzionarioen eskubide pasiboak eta, horrenbestez, montepiokoak ez badira.”

Honakoak dira salbuetsitako udalak, haien funtzionarioak montepioaren barruan ez daudelako: Iruña, oso-osorik, eta hein batean Tuteran (osasun arloko hango funtzionarioak montepio honetakoak dira) eta Tafalla (idazkaria eta osasun arloko funtzionarioak montepio honetakoak dira).

B) Adierazitako banaketa-irizpideak aplikatuz, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren otsailaren 8ko 352/2010 Ebazpenaren bitartez (2010ko martxoaren 10eko 31. NAO), Nafarroako Udal Funtzionarioen Montepio Orokorren 2009ko ekitaldiko defizita onetsi zen –18.016.383,20 eurokoa da guztira–, bai eta Nafarroako toki entitateen arteko banaketa ere, lanbide kategoria desberdinen arabera (idazkariak, sendagileak, farmazialariak, administrariak eta menpeko langileak).

Montepio Orokorren aipatu defizitetik –2010eko ekitaldian kargatzen da– Barañaingo Udalari 1.060.286,54 euroko ekarpen ekonomikoa dagokio, honako xehetasunekin:

a) Nahitaez bete beharreko karguak:

– Idazkariak 238.900,91 euro.

– Sendagileak 110.026,87 euro.

– Farmazialariak 97.850,84 euro.

b) Gainerako karguak:

– Administrariak: 28.908,03 euro (kontu-hartzaile bati dagozkio).

– Menpeko langileak: 584.599,89 euro (13 udaltzaini dagozkie).

C) 2010erako Nafarroako Aurrekontu Orokorre buruzko abenduaren 23ko 16/2009 Foru Legeko 13. artikuluan xedatuaren arabera, Nafarroako Gobernuak 6.431.848,80 euroko ekarpen bat egin du aipatutako defizita finantzatzeko (guztizkoaren % 35,70).

Udal bakoitzari esleitutako kuotaren arabera modu proportzionalean banatzen den zenbateko horretatik, Barañaingoari 378.522,29 euro egokitu zaizkio; horrenbestez, 2009ko Montepio Orokorreko defizitari 681.764,25 euroko ekarpen garbia egin dio.

2.- Antzeko udalen kasuei dagokionez, honakoa zehaztu beharra dago:

A) Nahitaez bete beharreko postu edo karguei dagokionez, Nafarroako toki entitateek populazioari buruzko kopuru ofizialen proportzioan ematen

dute beren ekarpen ekonomikoa; horrenbestez, ekarpen hori nahiko egonkorra da, nahiz eta gerta daitekeen une jakin batean ez edukitzea Montepio Orokorrari atxikitako langile funtzionarioik, arestian adierazitako kategorietan.

B) Toki entitateek gainerako lanpostu edo karguei dagokienez egiten duten ekarpen ekonomikoa lotuta dago montepio horri atxikitako funtzionarioen kopuruarekin, eta horietako bakoitzak bere ekarpen ekonomikoa egiten du adierazitako lanbide-kategorietan dauden funtzionarioen kopuruaren arabera.

1994ko urtarrilaren 1etik, Nafarroako toki entitateetan berritik sartzen diren funtzionarioak

Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean afiliatu eta bertan ematen zaie alta; horrenbestez, lanpostu horiei dagokien montepioaren defizita, gero eta handiagoa dena, langileak jardunean dauzkaten udalen bitartez sostengatzen da, eta horrelako langileak gero eta gutxiago dira.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betez.

Iruñean, 2010eko irailaren 29an

Lehendakaritza, Justizia eta Barneko jarduneko kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Lizarran eginen diren Karlismoari buruzko IV. Jardunaldiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Lizarran eginen diren Karlismoari buruzko IV. Jardunaldiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko 010eko irailaren 10eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera bat egin du Karlismoari buruzko Jardunaldiei buruz (PES 61). Zehazki, jakin nahi du zein

aurrekontu duten, haietan zenbat pertsonak eman duten izena eta jardunaldien helburu nagusia zein den. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

– Karlismoari buruzko Jardunaldietan exekututako aurrekontua 55.000 eurokoa izan da.

– 32 pertsonak eman dute izena bertan.

– Jardunaldien helburu nagusia da gaur egun oraindik ere presente dagoen mugimendu historiko, politiko eta sozial horren azterlan zientifiko zorrotzean sakontzea.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko urriaren 1ean

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Nafarroako Gobernuak proposatu dituen eskualde-eragineko jarduketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak proposatu dituen eskualde-eragineko jarduketei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 10eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak informazioa eskatu du Nafarroako Gobernuak proposatu dituen eskualde-eragineko jarduketei buruz (PES-

604/10). Hona hemen Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Banda zabalaren egungo egoera:

Foru Gobernuak Telekomunikazioetako Azpiegituren I Plan Zuzendaria egin eta , 2004-2008 urteetan jarri zuen abian. Horren hasierako helburua zen banda zabalerako sarbidea bermatzea gabeziak zeuden tokietan, non Internetera sartzeko inongo zerbitzuren estaldurarik ez dagoen (ez ADSL bidez, ez kable bidez), irrati bidezko sarbideko sare publiko bat zabalduz.

Telekomunikazioetako Plan Zuzendariarekin, epe laburrean, Wimax sare bat zabaldu zen, Iberbandak ustiatua eta Nafarroako Gobernuaren jabetzapekoa. Sare horren xedea da zerbitzu hori ematea operatzaileek, errentagarritasun eskasa dela medio, banda zabaleko konektibotasuna eskaintzen ez duten landa eremuei.

Sarea 2005etik dabil lanean, eta % 100 bete dira baldintza-orrien helburuak (udaletako hiriburuak eta 100 biztanle baino gehiagoko populazio-guneak). Horrela, gaur egun, udal guztiek (gutxienez ere haien hiriburuak) Internetarako banda zabaleko sarbidea dute (dela ADSL bidez, dela kable bidez, dela WIMAX teknologiaren bidez), eta 183 populazio-gune eta 4.575 pertsona geratzen dira estaldurarik gabe (Nafarroako populazioaren % 0,77). Herri horietan, gobernuak diru-laguntzak ematen ditu zerbitzua satelite bidez eskuratu ahal izateko.

2005etik, hobekuntza batzuk egin dira sartzeko abiadura areagotzeko (1 Mbps), bai eta haren erredundantzia eta eskuragarritasuna areagotzeko ere. Gaur egun, 4.219 dira Wimax sareko bezeroak.

“Nafarroa 2012 Planak” planaren garapena berreskuratu eta proiektua berriz zehaztu zuen. 2009an, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak, Foru Komunitateko ehundura industrial, ikertzaile eta teknologikoari konektibotasuna emateko eta Foru Gobernuako telekomunikazioetako sare korporatibo publikoa zabaltzeko, Telekomunikazioetako Azpiegituren Plana egin zuen, zeina gauzatzen baita Telekomunikazioetako Zerbitzu Anitzetarako Garraio Sare bat zabalduz (gobernuaren 2010eko martxoaren 8ko Erabakiaren bidez onetsi zen).

Sare hori hedatzeak eskatzen du euskarri-azpiegitura batzuk egitea, eta azpiegitura horiek egiteak, gastu publiko handiaz gainera, eskatzen du gisa desberdinetako inpaktuak eragitea. Hori dela eta, teknikoki bideragarria den kasu guztietan, planteatutako bidea da lehendik dauden azpiegitu-

rez baliatzea, bereziki Nafarroako errepideetako tarte batzuetan dauden kanalizazioez.

Baldintza horietatik abiatuta, planak proposatzen du sarea tarte desberdinetan zabaltzea, lehenetasuna emanez, betiere, haien hedapenari, interes estrategikoen arabera eta aurrekontuetan dirua egotearen arabera. Honako proiektuak biltsen ditu:

- I. proiektua: Iruña hirian kokaturiko xede-zentro batzuetako konexioa eta Iruña inguruko industrialdeetako konexioa, Herri Lan Departamentuaren kanalizazioak erabiliz.

- II. proiektua: Iruña-Tutera konexioa eta hurbileko xede-zentroen konektibotasuna, AP15 autobidearen trazadurari jarraituz.

- III. proiektua: Iruña-Viana konexioa eta hurbileko zentroen konektibotasuna, AP12 autobidearen trazadurari jarraituz.

- IV. proiektua: Iruña-Altsasu konexioa (A15 eta A10 autobideez baliatuta); Iruña-Rocaforte konexioa (A21 autobidetik); azpiegitura berriaren hedapena eskatzen duten eta esparru atlantiko-pirenikoan dauden xede-zentroen konexioa.

Halaber, aurreikusita dago Nafarroako Gobernuko irrati-loturen sareko telekomunikazioko lau zentro Foru Gobernuako sare korporatiboarekin lotzea zuntz optikoaren bitartez, bai eta sareko tarteak zabaltzea ere haren funtzionamenduari segurtasun handiagoa emateko.

2010. eta 2011. urteetan, obra egiteko eta zuzentzeko lanak egin ziren, hurrengo zentro teknologikoei eta industrialdeei konektibotasuna emateko, planeko berehalako helburuekin bat:

2010. URTEA	
I. proiektua	
I. zatia:	Aratzuri-Orkoinen industrialdea, Comarca industrialdea, Ipertegi industrialdea
II. zatia	GAVRN (Gestión ambiental viveros y repoblaciones)
III. zatia	Berrikuntzaren Hiria, CENER (Energia Berriztagarrien Zentro Nazionala)
IV. zatia	IDAB (Agrobioteknologia Institutua)
V. zatia	AIN (Asociación de Industria Navarra)
VI. zatia	ICT (Instituto científico tecnológico), CIMA (Centro de investigación médica aplicada)
VII. zatia	Zizur eta AP 15 autobideko kanalizazioaren elkargunea
VIII. zatia	Cordovilla eta AP 15 autobideko kanalizazioaren elkargunea
II. proiektua	
I. zatia	Noain-Ezkirozko industrialdea
II. zatia	Comarca II industrialdea
III. zatia	Getzeko Ordokia, Mocholi industrialdea (CETENA eta CEMITEC)
2011. URTEA	
II. proiektua	
IV. zatia	La Nava industrialdea, Erriberriko La Nava industrialdea
IX. zatia	Montes de Cierzo industrialdea
X. zatia	La Serna industrialdea (Nekazaritza-elikagaien Hiria), Las Labradas industrialdea
III. proiektua	
I. zatia	Aloa industrialdea
II. zatia	San Miguel industrialdea
III. zatia	IDIMA (Invest. Desarrollo Innovación Medioambiente Fundazioa)
IV. zatia	Estellerriko industrialdea, Urederra
Sarearen Epe Laburreko Konexioaren proiektua	
I. zatia	Elomendiko konexioa

LTDaren egungo egoera

2009ko abenduaren 10a baino lehen, hori izan baitzen foru erkidegoan itzalketa analogikoa egiteko ezarri zen data, behar ziren ekipoen hedapena amaitua zen, telebista analogikoan zegoen estaldura bera sustatzeko. Nafarroa izan zen LTDaren ezarpen-prozesua osatu zuen lehenengo autonomia erkidegoa. 2011n zehar, telekomunikazio zentroetako ekipo analogikoen desmuntatzea eta erretiratzea eginen da.

Instalazio Zientifiko Tekniko Bereziaren (ICTS) helburua

Instalazio Zientifiko Tekniko Bereziaren helburu orokorra da prozesuen garapenerako unitate bat edukitzea 2. belaunaldiko erregaiak pilotu gisako eskala batean sortzeko. Prozesuen garapenerako unitateak jatorri desberdinetako biomasa lignozelulosikoa erabiliko du lehengai gisa (labore energetikoak, nekazaritzaren eta basozaintzaren hondarrak, nekazaritzako industriaren hondarrak), era erabiliko da prozesuen garapenerako unitatea osa-

tuko duten prozesu guztietako etapak banan-banan analizatu eta aztertzeko.

Zentroa I+G proiektuen pilotu mailako entsegetarako eta erakusketetarako plataforma bat da, zeinak aukera emanen baitu hurrengo jarduera zientifiko eta teknologikoak aurrera eramateko:

- Oinarrizko ikerketa aplikatua, 2. belaunaldiko bioerregaien produkzioarako teknologien eta prozesuen garapenari eta erakusketari orientatua.
- Konbertsio prozesuen etapa desberdinen analisia eta garapena.
- Biobirfindegiaren kontzeptua garatzeko prozesuak integratzea.
- Garapen unitatea osatzen duten etapa desberdinen eta haiek merkatu-mailan mailakatzeko prozesu orokorren bideragarritasun tekno-ekonomikoari buruzko azterlanak.

Garatutako I+G lerroetan aurrera eramandako jarduerak eta haietan lortutako emaitzek honetarako bidea emanen dute:

- Patente eta argitalpen zientifiko eta teknikoak garatzea.

- Enpresei teknologia transferitzea.

Helburu orokorra aurrera eramateko, ezinbestekoa izanen da bestelako ikerketa zentroekin, unibertsitateekin eta sektore industrialarekin lankidetzak eta sinergiak ezartzea, intereseko arlo zientifiko-teknikoen definizioa orientatzeko eta definizio horretan parte hartzeko, bai instalazio zientifiko tekniko berezietan ordezkaturiko prozesuetan, bai instalazio zientifiko tekniko berezietako I+G jarduerekin lotuta beste batzuetan ere.

Proiektua gauzatzea

Proiektua bi fasetan egituratu da, eta gaur egun haietako lehengoa gauzatzen ari da. Urbanizazioa, bulegoak eta aurre-tratamenduko modulua udazkenean amaitu eta hartuko dira. Lehenengo fasearen abian jartzea 2012an egingen da.

Iruñean, 2010eko irailaren 17an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Osasun kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak proposatu dituen eskualde-eragineko jarduketei buruz (PES-604/10). Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Ikerketa Biomedikoko Zentroaren egungo egoera:

Obra Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen ekainaren 15eko 116/2009 Ebazpenaren bidez adjudikatu zitzaion OHL-Construcciones La Guareña SA enpresen aldi baterako batasunari.

Obra zuzendaritza Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen uztailaren 24ko 1384/2009 Ebazpenaren bidez adjudikatu zitzaion Vaillo&Irigaray Arquitectos, SA enpresari, 398.475 euroan.

Obra 2009ko irailaren 2an hasi ziren, eta kalkulatu zen 26 hilabetean amaituko zirela, normaltasunez garatuz gero.

Bereizmen Handiko Laguntza-zentroaren egungo egoera:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen otsailaren 8ko 234/2010 Ebazpenaren bitartez, aurreproiektuaren erredakzioa Estudio de Estrategias Arquitectónicas, SAS

SLri adjudikatu zitzaion, 95.800 euroan. Aurreproiektu hori maiatzean entregatu zen.

Nafarroako Gobernuak, 2010eko maiatzaren 31n eginiko bilkuran, baimena eman zion Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari proiektuaren erredakzioa kontrata zezan, gehienez ere 1.200.000 euroan, 2011ko eta 2012ko ekitaldien kargura.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiak, abuztuaren 24ko 1686/2010 Ebazpenaren bitartez, baimena eman zuen gastua egiteko, eta adjudikazio prozesuari hasiera eman zion. Lizitazio-iragarkia abuztuaren 30ean eman zen argitara Kontratazioen Atarian.

Gaur den egunean, lizitazio fasean dago. Eskaintzak aurkezteko epea, berriz, 2010eko urriaren 29an amaituko da.

Irudi Medikoaren Zentro Nazionaleko azpiegitura zientifiko-teknikoaren egungo egoera:

Nafarroako Gobernuak, 2009ko abenduaren 21ean eginiko bilkuran, baimena eman zion Osasun kontseilariari Zientzia eta Berrikuntza Ministerioarekin lankidetzatza-hitzarmen bat egiteko, Irudi Medikoaren ezarpena Nafarroan abian jartzeko, 300.000 euroko gastuarekin, 2010eko aurrekontuaren kargura.

Hitzarmena 2009ko abenduaren 30ean izenpetu zen, eta 18 hilabeteko iraupena zuen.

Gaur den egunean, aipatutako hitzarmena betetzeko behar diren kudeaketak egiten ari dira. Helbururik garrantzitsuena da zentroa egiteko proiektua idaztea.

Hori jakinarazten dut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko irailaren 22an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcelly

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak proposatu dituen eskualde-eragineko jarduketei buruz (PES-604/10). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriko lanak, lehenengo fasekoak, aurreikusitako epeetan egiten ari dira, halako moduz non 2011n fase hori osoa amaiturik edukiko dugun, 22.329 Ha-ko azalera ureztagarriarekin. Une hauetan jada 16.615 Ha ustiatzen ari dira.

Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiriari dagokionez, 2010ean, kogenerazioko zentrala eta bulego zentroa jarri ziren abian. Honezkerok 17 enpresa dira Nekazaritza-elikagaien Hirian ezartzea erabaki dutenak.

Hori jakinarazten dut Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2011ko irailaren 28an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentari-taldeari atxikitako foru-parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak proposatu dituen eskualde-eragineko jarduketei buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna, departamentu horri dagokionez:

1. ABIADURA HANDIKO GELTOKI BERRIAREN UDALEZ GAINDIKO PLAN SEKTORIALAREN EGOERA

Gobernuaren 2010eko urtarrilaren 18ko Erabakiaz –2010eko otsailaren 26ko 26. NAO n argitaratu zen– behin betiko onespina eman zitzaion “Abiadura handiko trenaren geltoki berriko esparrua eta Iruñeko tren geltoki zaharreko esparrua garatzeko udalez gaindiko plan sektorialari”.

Gaur egun, birzatatze eta urbanizatze proiektua idazten ari da, eta “Abiadura Handia-Iruñerria” Partzuergoa da haren onespina kudeatuko duen hiri-gintza agintaritza.

2. EREMU LOGISTIKOEN EGOERA

A. IRUÑEKO GARRAIOAREN HIRIA

Iruñeko Garraioaren Hiriaren hirugarren fasea jada urbanizaturik dago eta haren % 60 salduta dago. Halaber, plangintzan jasotakoaren arabera, 2009an, aparkalekuari buruzko inbertsioak amaitu ziren eta 2010ean hura egokitzeari ekin zaio.

Laugarren faseari dagokionez, urbanizazio- eta obra-sistemak aurreikusitakoaren arabera gauzatu dira. Eta 2010eko apirilaren 14an, Adifen eta Herri Lan, Garraio eta Komunikaziok Departamentuari atxikitako bi sozietateen –ANL eta CTP– arteko lankidetzak hitzarmena sinatu zen, “Iruñerriko Nodo Intermodala Integrazteko Proiektuaren” bideragarritasun azterlana egiteko.

B. TUTERAKO EREMU LOGISTIKOA

Aurreikusitakoaren arabera, 2009an, Tuterako Inguruneke Eremu Logistikoaren Bideragarritasun Azterlana egin zen. Kontseilariak 2009ko azaroaren 9an, haren ondorioak eman zituen ezagutzera, Tuteran.

Halaber, 2009an zehar, “Tuterako Logistika Eremuaren Negozio Eredua” landu zen, horrelako azpiegitura baten kudeaketa efizienteagoa bideratuko duen antolamendu-motarako eta negozio-eredurako proposamen gaurkotuagoa egin ahal izateko.

Antolamendu horretarako proposamena –Nasuinsak idatzi eta ANLk gainbegiratu du, eta hiru faseko garapena aurreikusten du eta aukera ere uzten du haien bigarren eta hirugarren garapen industrialak egiteko– 2010eko ekainean amaitu da, eta une hauetan bi entitateen administrazio kontseiluak aztertzen ari dira.

C. BESTE EREMU LOGISTIKO BATZUK

2009ko ekainean, Lurraldearen Antolamenduko Batzordeari Nafarroako eremu logistikoen eta intermodalitatearen lurralde-eredua aurkeztu zitzaion, Nafarroako Gobernuak urte hartako uztailaren 2an onetsia.

2009ko irailean, bi bideragarritasun azterlan atera ziren lehiaketara: bata Nafarroako iparraldeko eremu logistikoetarako –Altsasu, Iruztzun eta Bera inguruetan– eta bestea Nafarroa erdialdeko eremu logistikoetarako –Lizarra, Tafalla eta Zangoza-Irunberri inguruetan–.

2009aren amaieran, Nafarroako iparraldeko eta erdialdeko eremu logistikoei buruzko bideragarritasun azterlanak aurkeztu ziren.

2010ean zehar eremuen bideragarritasun azterlanak aztertu eta egokitu dira.

3. AIREPORTU HIRIA

Proiektu hori 2012 Planaren barruan sartu ondoren, 2008an zehar Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak bilera batzuk egin zituen Noaingo eta Galarko udalekin, jarduketei hasiera emateko beharrezkoa zen protokolo baten izenpetzea adostu ahal izateko.

Noainek hasiera batean erakutsi zuen aurkako jarrerak ezinezko egin zuen, lehenengo unean, akordioa. Alabaina, 2008ko amaiera aldean, hura izenpetzeko adostasuna lortu zen. Orduan, Galar, zeina hasieran proiektuaren alde baitzegoen, haren aurka jarri zen.

Jarduketa oso zail gertatuko zen bi udal horiek ados egon ezan.

Abagune horretan, Garraio Zuzendaritza Nagusiak bilera bat egin zuen Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuarekin, jarduteko aukerak aztertze aldera, eta planteatu zen aukera bat bazegoela Garraio Departamentuak hura lan-kidetzaren sistemaren bitartez egin zezan; izan ere, sistema horrekin, obrak Administrazioak egiten zituen, eta jabeei kostuak ordaindu ahal izateko kuotak kobratuko zizkien.

Krisi ekonomikoko eszenario batean murgilduta, ondorioztatzen da jabeei kuotak ordainaraztea arazo handia izanen litzatekeela, merkatuaren egoera dela eta.

Departamentuak erabaki du ez dela gomendagarria jarduketa horrekin jarraitzea, eta haren exekuzioa eteteko hautua egin da, harik eta merkatuak bidea ematen duen arte proiektua nolabaiteko bideragarritasunarekin gauzatu ahal izateko.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko irailaren 22an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoko proiektu enblematikoen egungo egoerari buruz. Hona horri buruzko informazioa.

Gaur egun, eginiko daude Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoko 10 proiektu enblematikoen bideragarritasun-azterlan guztiak. 10 proiektu horietatik, jada abian dira Larra-Belagoako Eski Nordikoko Zentroa, Hirigintza Aholkularitzarako Bulegoak, Burgiko industrialdea eta Itoizko urtegi-ko jolas-erabileretarako jarduerak, eta Agoizko balio anitzeko zentroa inauguratuta dago.

Gainerako proiektuetatik, zenbait bultzatzen dira: Aezkoa Ibarreko Batzarrak sustaturiko Iratiko oihaneko Interpretazio Integralerako Zentroa eta Aezkoako, Zaraitzuko eta Erronkariko ibarretako batzarrak Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin bultzatzen ari diren egurraren eta basoaren aprobetxamendurako zentroak (biomasa aprobetxatzeko proiektuak). Gerontologia-zerbitzuetarako enpresari eta zerbitzu turistikoetarako enpresari dagokienez, haiek abian jartzeko promotoreen bila ari da.

Azkenik, honako proiektuak ere badaude:

Urrobiko industrialdea zabaltzea (Nasuinsa sozietate publikoa-Nasursa sozietate publikoa): udalez gairako plan sektoriala aurkeztua dago, industrialde horrek Erro-Aezkoa balio anitzeko zentroa har dezan, eta zentro hori egiteko lurzorua erosteko prozesuan gaude.

Jarduteko balio anitzeko zentroen sorrera (Nasursa sozietate publikoa): Erro-Aezkoako, Zaraitzuko eta Erronkariko balio anitzeko zentroetarako proiektuen erredakzioa kontratatu da; zentro horiek Izizko (Zaraitzu) eta Burgiko (Erronkari) industrialdeetan egiteko lursailak erosi dira, eta hurrengo hiletan obren lizitazioari ekinen zaio.

Irunberrin, Pirinioetako Ataria izeneko jarduera ekonomikoen esparruaren garapena (Nasursa sozietate publikoa): jarduera ekonomikoen eremuko kanpoko azpiegiturak amaituta daude; ezarri beharreko jarduerari dagozkien azterlanak eta bideragarritasun ekonomikoko azterlanak amaitu dira, eta aurreikusita dago datozen hilabeteetan, eremu horretarako planeamenduaren erredakzioa lizitatzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 1ean

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Amelia Salanueva Murguialday

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du zenbait jarduketek erregio mailan izanen duten eraginari buruz (PES-604/10). Segurtasunaren Hiriri dagokionez, hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Segurtasunaren Hiria erregio mailako eragina izanen duen jarduketa bat da, nazioarteko irismena ere baduena eta, gainera, Nafarroa 2012 Planean lehentasunezko jarduketa gisa jasota dagoena. Halakoa den aldetik, erantzuna eman nahi die Nafarroako Gobernuko Barne arloaren zerbitzuek behar dituzten azpiegiturari eta ondare-segurtasuneko neurri bereziak behar dituzten beste azpiegitura batzuei –hori guztia, etorkizuneko bokazioarekin. Aldi berean, aukera eta jarduera ekonomikoen arloaren bitartez, segurtasunaren sektorearekin lotutako enpresa berriak kokatzeko azpiegitura bat izatea nahi da. Horri dagokionez, nazioarteko irismena duen apustu bat da, zeinak balioko baitu jarduera ekonomikoa dibertsifikatzeko eta Nafarroan aberastasuna eta enplegua sortzeko, Nafarroako Gobernu Moderno Planaren bitartez garatzen ari den jardueren eta ildo bereko beste jarduera batzuen esparruan.

Une honetan, udalez gaindiko plan sektoriala idazteko lanen hasierako fasean gaude, "Entremutilvas eta Sankin parajea" eremuan hautatutako kokapenari dagokionez; izan ere, kokapen horrek Iruñeko, Arangurengo eta Eguesibarko udal barrutietan du eragina. Horretarako eginiko azken ekintza administratiboa Barne zuzendari nagusiaren irailaren 23ko 3963/2010 Ebazpena izan zen. Haren bidez, Nasursa enpresa publikoari, ente instrumentala den aldetik, enkargatu zitzaion udalez gaindiko plan sektorialaren laguntza teknikoko eta zuzendaritzako lanak egitea, erakin publikoak egiteko aurreproiektuak idaztea, urbanizazio-proiektua egitea, antolamendu-lanak eta birzaitze-lanak egitea eta lursailak lortzea.

Aurretik, bere garaian, proiektuaren bideragarritasun azterlanak eta haren norainokoa definitzekoak egin ziren, bai eta finantziario eta negozio ereduak zehaztekoak ere; halaber, honako lanak ere egin ziren: programa funtzionalak eta eraikin publikoen premiei buruzko programak egitea, kokapen egokiena hautatzeko lanak eta udalez gaindiko plan sektorialaren aurretiko lan teknikoak. Lan horiek guztiak Barne zuzendaritza nagusiaren bitarteko propioekin egin ziren, eta beste batzuk, berriz, Sprin eta Tracasa enpresa publikoen laguntzarekin.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betez.

Iruñean, 2010eko irailaren 29an

Lehendakaritza, Justizia eta Barneko jarduneko kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak proposatu dituen eskualde-eragineko jarduketei buruz (PES 604-10) eta, zehazki, departamentu honi dagozkion jarduketei buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Iruñeko Zaharrentzako Etxe-egoitza

Gaur egun, behar diren izapide administratibok egiten ari dira obra adjudikatzeko lizitazio prozesua onetsi eta irekitzeko.

Lizarrako Etxe-egoitza

Jarduketa hori sartzan da batera egin beharreko jarduketa multzo baten barrenean. Haren lehe-

nengo fasearen amaieran, izan ere, behar diren instalazioak egokitu dira Lizarrako gizarte zerbitzuen zentroa bertan jarri ahal izateko.

Lehenengo fase hori amaiturik, 2011ko aurrekontu-ekitaldian aurreikusitako gainerako jarduketak eginen dira.

Tuterako Etxe-egoitza

Buruko nahaste larria duten pertsonei arreta emateko Programako berrantolamenduari buruzko agirian, Nafarroako Gobernuak 2010eko apirilaren 12an onetsitakoan, Tuterako esparrurako aurreikusten da balio anitzeko egoitza bat eraikitzea. Obra hori, dena den, oraindik ere, eraikuntza-lanak esleitu ahal izateko beharrezkoa den administrazio izapidetzearen aurretiko prestatze-fasean dago.

Sarrigurengo Etxe-egoitza

Gaur egun, amaitzeko fasean dago. Obra 2010eko abuztuan amaitu da, eta gaur egun behar den ekipamendua jartzen ari da.

Lizarrako Oncineda zentroa

Jarduketa horrek berarekin ekarri du erakin berri bat egitea. Hura egiteko obrak jada amaierako fasean daude, eta aurreikusita dago urte bukarkerako amaituta egotea. Bestalde, haren ekipamendua jada esleituta dago, eta aurreikusita dago proiektua 2011ko martxorako guztiz amaituta egotea.

Bestalde, eraikin zaharra birmoldatzeko obrak ere egin dira. Horiek ere amaitzeko fasean daude. Behar den ekipamendua esleitu ondoren, aurreikusten da 2011ko lehenengo hiruhilekorako amaituta egotea.

Lizarrako Santo Domingo zentroa

Behin betiko kokapenari buruzko analisi fasean dago proiektua. Horri dagokionez, dauden aukerei eta haien bideragarritasunari buruzko azterlan teknikoa eta juridikoa egiten ari dira.

Mendekotasuna duten pertsonei laguntzeko erabilera anitzeko zentroa.

Behin betiko kokapena erabakitzeko lursailak aztertzeko fasean dago zentroa.

Iruñean, 2010eko urriaren 8an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, zerbitzu publikoen kalitate planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du zerbitzu publikoen kalitate planari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 10eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Kalitate Planari buruz (PES-607/10). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoko Zerbitzu Publikoen Kalitate Planak erantzuten dio Nafarroako Gobernuak herritarrekin 2007-2012 urteetarako hartutako legegintzaldiko konpromisoari.

2010eko maiatzean, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua (NAPI) aipatu plan estrategikoa prestatzeko beharrezkoak diren lanak egiten hasi zen.

Plana prestatzeko, NAPIko Politika eta Zerbitzu Publikoen Kalitatearen Zerbitzuaren eta foru erkidegoko Administrazio departamentu guztietako ordezkarien arteko lankidetzan eta partaidetzan oinarritutako metodologia aplikatzen ari da, eta, horretarako, berrikuspenerako eta egiaztapenera-

ko lan-talde bat osatu da. Lan-talde horretan parte hartzen dute, baita ere, Nafarroako Bikaintasunaren aldeko Federazioak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak. Prozesu horretan, lan-taldeak Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren kanpoko aholkularitza izan du.

Aurreikuspenen arabera, planaren prestaketa urte honetako amaieran bukatuko da, adosturiko zirriborro bat aurkezten denean. Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeko Foru Batzordeak zirriborroa aztertuko du eta Nafarroako Gobernuari igorriko dio, onets dezan.

Lortu nahi den helburua da Zerbitzu Publikoen Kalitatearen Plana izatea hobekuntzarako jarduketa eta neurri egokiak zehaztuko dituen erreferentziatzeko markoa, zerbitzu publikoen hobekuntza bultzatzeko eta Foru Komunitateko Administrazioaren erabiltzaileen asetasuna lortzeko.

Hala, berariazko kalitate plan bat prestatu nahi duen departamentu, erakunde autonomo edo beheragoko unitate bakoitzak xede hori bete ahal du marko orokor horretatik abiatuta.

Halaber, kalitateari buruzko esparru-planak jarraipen sistema bat izanen du, haren aplikazio maila neurtzeko, bai departamentu, erakunde autonomo edo beheragoko unitate bakoitzean bai Foru Komunitateko Administrazio osoan.

Hori jakinarazten dut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betez.

Iruñean, 2010eko irailaren 29an

Lehendakaritza, Justizia eta Barneko jarduneko kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Abeltzainen Sektorearentzako Plan Estrategikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Abeltzainen Sektorearentzako Plan Estrategikoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 10eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Abeltzainen Sektorearentzako Plan Estrategikoari buruz (PES-608). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

2009an, GAP enpresari esleitu zitzaion Nafarroan abeltzaintzako jarduketak abian jartzeko plan estrategiko bat idazteko laguntza teknikoa. Plan horretan jaso eta laburbildu behar zen abeltzaintzak Nafarroan bizi duen egoera, oinarri hartuta estatistika, errolda eta erregistroetatik eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko eta ITG Ganaderoko teknikarien esperientzia eta ekarpenetatik ateratako informazioa.

Abeltzaintza Zerbitzuak koordinatu du lana, eta haren emaitza lan dokumentu bat izan da. Dokumentu hori, egun egiten ari den barneko berrikuspena amaitutakoan, abeltzaintzaren sektoreko elkarte profesionaleri aurkeztuko zaie, urte honetako abenduan.

Hori jakinarazten dut Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko irailaren 28an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, “Sección clonal y sanitaria de la vid y patrones de vid en Navarra” izeneko ikerkuntza proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du “Sección clonal y sanitaria de la vid y patrones de vid en Navarra” izeneko ikerkuntza proiektuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 10eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Mahatsondoaren hautaketa klonala eta sanitarioa eta mahatsondo ereduak Nafarroan izeneko ikerketa-proiektuari buruz (PES-600). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak, 2010eko abuztuaren 9an eginiko bilkuran, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiari baimena eman zion urte anitzeko gastu bat konprometitzeko, 2010-2013 urteetarako. Gastu horren xedea zen Nafarroako Mahastizaintza eta Enologi Zentroak egin

behar zuen Mahatsondoaren hautaketa klonala eta sanitarioa eta mahatsondo ereduak Nafarroan izeneko ikerketa-proiektua finantzatzea. Horri dagokion kontusaila da 2010eko gastuen aurrekontuko 700001-71430-2276-468103 Nekazaritza-ko ikerketa-proiektuak izenekoa.

Dokumentu hau erantsi dugu: Mahatsondoaren hautaketa klonala eta sanitarioa eta mahatsondo ereduak Nafarroan.

Hori jakinarazten dut Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko irailaren 27an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Ágora Parlamentu kudeaketarako tresnan)

Galdera, Familia-bitartekotzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du **Familia-bitartekotzari** buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 10eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Familia-bitartekotzari buruzko Foru Lege proiektua zertan den jakiteko (PES 603/10). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Familia-bitartekotzari buruzko Foru Legearen aurreproiektua, behin idatzita, jendaurrean eduki da eta alegazioak erantsi zaizkio. Horrez gain, derrigorrezkoak diren oroitidazki justifikatzailea eta ekonomikoa burutu dira, baita genero-eraginaren txostena ere, eta Legegintza Ekintzaren Zerbitzura igorri da.

Aipatu zerbitzuak txostena eman du, eta bertan esaten denez, lege testua prestatzeko prozedura modu egokian bete da; hala ere, aipatzen da

testuan badirela arlo sozialeko eta zibileko gaiak, eta, hori dela eta, Nafarroako Gobernuak, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren bidez, gai horiei buruzko iritzia eman beharko du, eta Nafarroako Foru Zuzenbide Zibileko Kontseilu Aholku-emaileak, halaber, testuari buruzko irizpena eman beharko du.

Horri guztiari gehitu behar zaio aurten Justizia Ministerioa Gai Zibilen eta Merkataritzakoen arloko Bitartekotza eta Arbitrajeari buruzko legea izapidetzen hasi dela. Aurreproiektu hori Estatu Kontseiluaren irizpenaren zain dago.

Azkenik, duela gutxi, Nafarroako Parlamentuak jagoletza partekatuari buruzko arau-proposamena onartu du izapidetzeko. Gogora dezagun jagoletza partekatua dela bikote batek familia bitartekaritzaren bidez lor dezakeen akordioetako bat.

Horregatik guztiagatik, erabaki dugu zuhurtzia muturreraino eramatea Familia-bitartekotzari buruzko Foru Legearen aurreproiektua onesteari dagokionez, eta hura berrikustea eta Estatuan onesten den legera egokitzea eta Nafarroako Parlamentuak jagoletza konpartituari buruz onets dezakeen araudia ere bertan jasotzea; izan ere, horrela saihestuko genuke onetsia berria den lege testu bat aldatu behar izatea.

Iruñean, 2010eko irailaren 30ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Mendekotasunaren Legea indarrean sartu zenez geroztik mendekotasun-graduak zehazte aldera egin diren balorazioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Asun Fernández de Garaialde y Lazkano galdera egin du Mendekotasunaren Legea indarrean sartu zenez geroztik mendekotasun-graduak zehazte aldera egin diren balorazioei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 10eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak galdera egin du, Mendekotasunaren Legea indarrean sartu zenez geroztik egindako berrikusketa eta birkalifikazioei buruz, mendekotasun-graduen balorazioari dagokionez. Horri erantzuteko, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak honekin batera doan orrian jasotako informazioa igorri du.

Iruñean, 2010eko irailaren 30ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Berrikusketaren ondorioz balorazio arinagoa duten pertsonak			
Aurreko balorazioa	Egungo balorazioa		Pertsona kopurua
	Gradua	Maila	
Mendekotasun moderatua dutenak	2	Mendekotasunik ez dutenak	31
	2	Mendekotasun moderatua dutenak	137
	1	Mendekotasunik ez dutenak	84
	<i>Mendekotasun moderatua dutenak, guztira</i>		252
	1	Mendekotasunik ez dutenak	16
	2	Mendekotasunik ez dutenak	39
Mendekotasun larria dutenak	1	Mendekotasun moderatua dutenak	57
	2	Mendekotasun moderatua dutenak	13
	2	Mendekotasun larria dutenak	55
	1	Mendekotasun moderatua dutenak	56
	2	Mendekotasun moderatua dutenak	33
	<i>Mendekotasun larria dutenak, guztira</i>		269
	1	Mendekotasun moderatua dutenak	2
	2	Mendekotasun moderatua dutenak	2
	2	Mendekotasun moderatua dutenak	1
	1	Mendekotasun moderatua dutenak	3
Mendekotasun handia dutenak	1	Mendekotasun larria dutenak	13
	2	Mendekotasunik ez dutenak	4
	1	Mendekotasunik ez dutenak	1
	2	Mendekotasun larria dutenak	1
	2	Mendekotasun larria dutenak	31
	1	Mendekotasun larria dutenak	13
	2	Mendekotasun handia dutenak	13
	<i>Mendekotasun handia dutenak, guztira</i>		84
GUZTIRA			605

Berrikusketaren ondorioz balorazio larriagoa duten pertsonak			
Aurreko balorazioa	Egungo balorazioa		Pertsona kopurua
	Gradua	Maila	
Mendekotasun moderatua dutenak	1	Mendekotasun moderatua	256
	2	Mendekotasun moderatua dutenak	87
Mendekotasunik ez dutenak	1	Mendekotasun handia dutenak	9
	2	Mendekotasun larria dutenak	72
	2	Mendekotasun larria dutenak	36
	1	Mendekotasun handia dutenak	22
	<i>Mendekotasunik ez dutenak, guztira</i>		482
	2	Mendekotasun larria dutenak	495
	1	Mendekotasun moderatua dutenak	335
	1	Mendekotasun larria dutenak	251
	1	Mendekotasun larria dutenak	123
Mendekotasun moderatua dutenak	2	Mendekotasun larria dutenak	180
	1	Mendekotasun handia dutenak	25
	1	Mendekotasun handia dutenak	79
	2	Mendekotasun handia dutenak	22
	2	Mendekotasun handia dutenak	118
	<i>Mendekotasun moderatua dutenak, guztira</i>		1628
	2	Mendekotasun handia dutenak	111
	1	Mendekotasun handia dutenak	100
Mendekotasun larria dutenak	1	Mendekotasun larria dutenak	258
	2	Mendekotasun handia dutenak	219
	1	Mendekotasun handia dutenak	283
	<i>Total dependientes severos</i>		971
Mendekotasun handia dutenak	1	Mendekotasun handia dutenak	88
	<i>Mendekotasun handia dutenak, guztira</i>		88
GUZTIRA			3169

Mendekotasunari dagokionez eginiko balorazio-berrikusketei buruzko datuak

Eginiko berrikusketen kopurua	5.991
Aurreko balorazioa aldatzen ez duten berrikusketen kopurua	2.217
Aurreko balorazioa aldatzen duten berrikusketen kopurua (graduaren eta mailaren arabera xehakaturata aurreko koadroan)	3.774
Interesdunak eskatuta eginiko berrikusketen kopurua	5.098
Ofizioz eginiko berrikusketen kopurua	893

Galdera, Abeltzainen Sektorearentzako Plan Estrategikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Abeltzainen Sektorearentzako Plan Estrategikoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 10eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du, Etxarri-Aranazko eta Leitzako osasun etxeetako ginekologia zerbitzuarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Etxarri-Aranazko Emakumeari Laguntzeko Zentroan laguntza ginekologiko bikaina ematen zaie eskualde horretako emakumeei. Zentro horretan, ginekologo bat, bi emagin eta hezitzaile bat daude; beraz, ez dago inolako baliabide faltarik

laguntza hori emateko. Une jakinetan (amatasunezko atsedenaldia, eritasunaren ondoriozko baja), langabezia dauden profesionalak falta direnez, ordezkapenak II. Zabalguneko Emakumeari Laguntzeko Zentroko langileek egiten dituzte.

2007-2009 aldian, ginekologia eta obstetrizia zerbitzua Iruñeko Bideko Ama Birjina Ospitaleari atxikita zegoen; gaur egun Nafarroako Ospitaleguneari dagokio.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua osatzen duten zentroyen aurrekontua, gastu motaren arabera kapitulu ekonomikotan multzokatzen dena, kontusailetan banatzen da haren izaeraren arabera. Banaketa hori ez da egiten zentroa osatzen duen unitate organiko bakoitzerako.

Leitzako oinarrizko unitateko emakumeei laguntza ezin hobea ematen zaie Etxarri-Aranazko Emakumeari Laguntzeko Zentroan eta II. Zabalguneko Emakumeari Laguntzeko Zentroan.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetze-ko.

Iruñean, 2010eko urriaren 7an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, arrisku kimikoen osagarria dela-eta administrazioaren isiltasuna jaso duten eskabideei eta gora jotzeko errekurtsoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak galdera egin du arrisku kimikoen osagarria dela-eta administrazioaren isiltasuna jaso duten eskabideei eta gora jotzeko errekurtsoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak galdera egin du arrisku kimikoen osagarria dela-eta administrazioaren isiltasuna jaso duten eskabideei eta gora jotzeko errekurtsoei buruz (PES 617/10). Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Une honetan ez dago ustezko arrisku kimikoen ondoriozko destino-osagarriaren eskabiderik erantzun gabe eta administrazioaren isiltasun-egoeran.

Gora jotzeko errekurtsoei dagokienez, 63 espediente dira egoera horretan daudenak.

Bestalde, esan behar da 59 espediente direla arrisku kimikoak direla-eta administrazioaren isiltasuna jaso duten destinoko osagarriei buruzko eskaerak, administrazioarekiko auzien epaitegietan prozedura laburtuaren bidez epaitzeko zain daudenak.

Hori jakinarazten dut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betez.

Iruñean, 2010eko urriaren 8an

Lehendakaritza, Justizia eta Barneko jarduneko kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Txikizkako Merkataritza Modernizatzeko Planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Txikizkako Merkataritza Modernizatzeko Planari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak informazioa eskatu du Txikizkako Merkataritza Modernizatzeko Planaren egoerari buruz (PES-615/10). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Txikizkako Merkataritza Modernizatzeko Plana da Nafarroako Gobernuak duen tresna nagusia merkataritzaren sektorea bultzatzeko politikak planifikatu eta garatzeko. Gainera, politika horiek sektorearekin adostu dira alde aurretik.

Gaur egun, indarrean dago Barneko Merkataritza Modernizatzeko II. Plana, 2008-2011 urteak hartuko dituen.

Proiektu horren aurrekontuak 16 milioi euro egiten ditu; 2005-2007 urteetan gauzatutako lehenbiziko planean ezarritakoa baino dezente gehiago, haren aurrekontua 6,6 milioi eurokoa baitzen.

Orain arte, bigarren modernizazio plana eginko plangintza orokorraren arabera gauzatzen ari da. Aldizka haren garapenaren ebaluazioa egiten da, sektorearekin batera. Beharrezkoak diren aginduak eta ebazpenak eman dira eta hitzarmenak sinatu dira sektoreko elkarteekin. Aurreko ekitaldian baino eskaera gehiago aurkeztu dira, eta laguntzak azkar ari dira banatzen.

Hona hemen gaur egun indarrean dauden jarduketako ildo nagusiak:

I) Lehiakortasuna Hobetzeko Programa.

II) Kolektiboak Sustatzeko eta Kudeatzeko Programa.

III) Merkataritzaren Arloko Prestakuntza eta Enplegu Programa.

IV) Merkataritzako Hirigintzari buruzko Programa.

V) Merkataritzaren Lurralde Plangintzari eta Lege-esparruari buruzko Programa.

VI) Informazioaren Sorkuntzari, Kudeaketari eta Zabalkundeari buruzko Programa.

2011n, hori baita plana aplikatuko den azken ekitaldia, bidezkoak diren kontratuak sinatuko dira sektorearekin, Nafarroako merkataritzaren sektorea bultzatzeko programa berri bat prestatzeko oinarriak finkatze aldera.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Galdera, 2015era bitarteko Energia Planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du 2015era bitarteko Energia Planari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak informazioa eskatu du 2015era bitarteko Energia Planari buruz (PES 2015/10). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

2020 urtera bitarteko denbora-muga proposatu da, 2015erakoa beharrean, halaxe egin baita eremu zabalagoko administrazioen energia politikei buruzko plangintzetan –esaterako, Europar Batasunaren 20-20-20 neurri sorta, edota Espainiaren Energia Berriztagarrien Plana (PANER 2020)–.

Energia Plana da Nafarroako Gobernuak arlo horretako politikak garatzeko duen plangintza-tresna nagusia.

Gaur egun, Administrazioko langileak plan berria prestatzen amaitzen ari dira.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, Mendekotasunari Aurrea Hartzeko Planaren egungo egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Mendekotasunari Aurrea Hartzeko Planaren egungo egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 17ko 90. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Mendekotasunari Aurrea Hartzeko Plana zertan den jakiteko (PES 610/10). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Hasteko, esan behar ulertu dugula da egindako galdera Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan aurreikusten den Mendekotasunari Aurrea Hartzeko Programari buruzkoa (4.1.1. jarduketa) dela.

Horri dagokionez, esan behar da gaur egun diseinatzen ari dela programa horren edukia. Horretarako, kontuan hartu behar da Ezgaitasuna duten Pertsonen Arreta Integralerako Plana, zeina, Nafarroako Gizarte Ongizate Kontseiluaren aldeko irizpena lortu ostean, onestear baitago. Plan horretako helburu, ildo estrategiko, neurri eta jarduketetako asko, ezgaitasunen bat duten pertsonen hondatze funtzional eta kognitiboari aurrea

hartzeko xedea dutenak, Mendekotasunari Aurrea Hartzeko Programan ere jaso behar dira.

Aipatu programak aurreikusi beharko duen alderdietako bat da adineko pertsonak beren etxean edo inguruan geratzeari buruzkoa. Horrekin lotuta, gaur egun sakonki aztertzen ari dira etxean gelditu eta familia zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoaren eraginkortasuna, mendekotasuna duten pertsonen ematen zaien laguntza, laguntzek pertsona horien bizi kalitatean duten eragina, eta laguntza horiek jasotzen dituzten pertsonen eta haien familien asebetetasun-maila.

Programa horretan ezinbestean jaso beharreko alderdiak dira zahartze aktiboaren sustatzea eta zaintzaileei eta boluntarioei zuzenduriko prestakuntza.

Atal horiei guztiei buruzko ondorioek programaren ildo estrategikoak, helburuak, neurriak eta jarduketak osatuko dituzte.

Horretaz gain, mendekotasun egoeran dauden pertsonen eman beharreko laguntzan inplikaturik dauden Nafarroako Gobernu departamentuen lankidetzaren izan dugun, bai eta gai horrekin lotuta dauden entitateena, enpresa zerbitzu-emaileena eta gizarte-eragileena ere. Ez bakarrik autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasunari aurre hartzeari dagokionez, baita mendekotasun egoeran dauden pertsonen eman beharreko laguntzari dagokionez ere.

Iruñean, 2010eko urriaren 8an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Ijitoen Arreta Integralerako Planaren egungo egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Ijitoen Arreta Integralerako Planaren egungo egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 17ko 90. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Ijitoen Arreta Integralerako Plana zertan den jakiteko (PES 611/10). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Gaur egun idazten ari da ijitoen herriaren egoeraren diagnosiari buruzko azken dokumentua.

Diagnosi hori egiteko, informazio bilketa egin zen lehenbizi. Informazio bilketa hori egiteko epea aurtengo ekainaren 30ean amaitu zen. Uztailean

zenbait lan-talde osatu ziren, ijitoen elkarrekin, bai eta osasuna, hezkuntza, etxebizitza, enplegua, kultura eta gizarte zerbitzuak bezalako arloetan dituzten eskumenak direla-eta planaren prestaketan parte hartu behar zutelara izan zen Nafarroako Gobernu departamentuetako langileekin ere. Lan-talde horien bileretan eztabaidatu zen ijitoen egungo egoeraz eta babes sozialerako sistema desberdinek ijitoen beharriari ematen dieten erantzunaz.

Bilera horietan lortutako informaziotik abiatuta, diagnosiaren azken dokumentua ari da idazten, zeinak jasoko baititu lan-taldeetan eginiko ekarpen guztiak.

Diagnosia amaitu ostean, hura jasoko da helburuak, ildo estrategikoak, neurriak eta jarduketak izanen dituen lan dokumentu baten proposamenean. Urrian egingen diren lan-talde bileretan dokumentu hori eztabaidatu eta balioetsiko da.

Aurreikuspenen arabera, Ijitoen Arreta Integralerako Plana amaituta egonen da 2011ko lehen hiruhilekoan.

Iruñean, 2010eko urriaren 8an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Nafarroako Azpiegiturei buruzko 2008tik 2011ra bitarteko Plan Orokorrari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Azpiegiturei buruzko 2008tik 2011ra bitarteko Plan Orokorrari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 17ko 90. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Kirol Azpiegiturei buruzko Plan Orokorra zertan den jakiteko (PES 612/10). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

2009an eta 2010ean, Kirol Instalazioetako Inbertsioen Plana prestatu da. Plan horren helburua da Nafarroako Foru Komunitatean instalazioen sare bat sortzea, eremuka, herritar guztien beharrezanean erantzuteko. Horretarako, gehieneko bat ezarriko da, kirol instalazio bateraino egon daite-

keen distantziari eta denborari dagokienez. Hala-ber, kirol teknifikaziora bideratutako kirol azpiegituren kopurua areagotu nahi da.

Zehazki, horri dagokionez, ondoko jarduketak egin dira:

1 – Nafarroako Kirol Institutuak, Kirol Azpiegituren Zerbitzuaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko kirol instalazioak hobetzeko inbertsio Plana idatzi du, Nafarroako Kirolaren Plan Estrategikoaren garapenaren ondorioz.

2 – Plan hori Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilari María Isabel García Malo andreak aurkeztu zuen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordean, 2010eko ekainaren 3an. Batzordeak planarekiko adostasuna agertu zuen, eta zenbait hobekuntza proposatu zituen, planean jaso direnak.

3 – Plana onetsi zen Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren uztailaren 2ko 211/2010 Foru Aginduaren bidez.

4 – Ondoren, argitaratu egin zen, 2010eko 107. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, irailaren 3an.

Iruñean, 2010eko urriaren 8an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Gazteen Emantzipazioari buruzko Planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Gazteen Emantzipazioari buruzko Planari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 17ko 90. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Gazteen Emantzipazioari buruzko Plana zertan den jakiteko (PES 613/10). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Gazteen Emantzipazioari buruzko Plana sortu zen Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Alderdi Sozialistak, 2008ko Nafarroako aurrekontu orokorren esparruan, sinatu zuten aurrekontuei buruzko akordioaren ondorioz.

2008ko irailaren 9an, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak agerraldia egin zuen, berak eskatuta, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordean, 2007-2011 legegintzaldian Gazteriari buruzko Foru Lege bat izapidetzeko ekimenari buruz informatzeko. Halaber, lege horren prestaketa-prozesuari, parte-hartzeari eta

exekuzio-epeei buruzko xehetasunak ere azaldu zituen, eta izapidetzea amaitzeko epea 2011n ezarri zuen.

Foru lege honen xedea da gazteen autonomia bultzatzea gazteriaren arloan berdintasunezko politika sustatuz; politika horrek norbanakoaren garapenerako, sustapenerako eta parte-hartze sozialerako baldintza egokiak bermatu behar ditu eta, horrela, herritar gazte konprometitu, arduratsu, oso eta aktiboak lortzeko bidea jarri.

Hala, Gazteriari buruzko Foru Legea izaera integrala eta zeharkakoa duen araua da, pertsona gazteekin zerikusia duten arlo guztiak hartzen baititu. Bada, alderdi sozialistari legearen irismenaren berri emanda –legeak Emantzipazio Planaren helburuak jasotzen ditu–, Gazteriari buruzko Foru Legearen prestaketari lehentasuna ematea eta bertan planaren xede izanzen ziren jarduketak jasotzea adostu zen. Edonola ere, nabarmendu behar da legeak gazteekiko konpromiso handiagoa adierazten duela, bai prestaketa prozesuagatik, bai arauaren mailagatik.

Gaur egun, amaitzen ari da Nafarroako Gobernuak Gazteriari buruzko Foru Lege proiektua onesteko izapidetu behar den espedientea, eta, ondoren, foru lege proiektua Parlamentuan izapidetuko da.

Iruñean, 2010eko urriaren 8an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Corellan sartzeko biribilgunean paratutako eskulturen gastuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José María Vázquez Royo jaunak galdera egin du Corellan sartzeko biribilgunean paratutako eskulturen gastuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 1eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako José María Vázquez Royo jaunak galdera egin du Corellan sartzeko biribilgunean eskulturak paratzearen ondoriozko gastuari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Corellako herrira sartzeko biribilgunean paratutako eskulturen gastua 120.000 eurokoa izan da.

Mahats-biltzea Nafarroan izeneko apainketamotiboa da, Jesús Pérez Marín, Bóregan eskultoreak egina.

Zenbateko hori ordaindu du Corellako saihe-bidea eraiki duen Azysa enpresak.

Ordainketa horren arrazoia da administrazio klausula partikularren orrietan jasotzen den bete-beharra, zeinaren bidez errepideak egiteko obren esleipen-hartzaileak, obrak 6 milioi eurotik gorak badira, berak eskainitako diru kopurua jarri behar duen ekarpen estetiko gisa, obra horretan edota Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak zehazten duen besteren batean.

Hori dela eta, ordaindutako kopuru hori ezin zaio egotzi Nafarroako Gobernuaren aurrekontuko inongo kontusaili.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak apaingarriaren esleipenean duen esku-hartze bakarra da artista desberdinak gonbidatuta egiten den lehiaketa, Kultura eta Turismo Departamentuak eta Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak osatutako batzordearen bidez.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko urriaren 13an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Riegos de Navarra aldi baterako enpresen batasunak NA-6120 errepideko obrak direla-eta erantzun ez izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José María Vázquez Royo jaunak galdera egin du Riegos de Navarra aldi baterako enpresen batasunak NA-6120 errepideko obrak direla-eta erantzun ez izanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 1eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako José María Vázquez Royo jaunak galdera egin du NA-6120 errepideko Berbintzanako bideunearen egoerari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, Zainketa Zerbitzuaren bidez, gestio ugari egin ditu, bai Riegos del Canal de Navarra enpresen aldi baterako batasunarekin bai Riegos de Navarra, S.A. enpresa publikoaren arduradunekin, eta, horren ondorioz, lortu du aste honetan bertan egitea Berbintzanatik Lerinera doan NA-6120 errepidean bide segurtasuna ziurtatzeko beharrezkoak diren konponketa-lanak; izan ere, bertan tonaje handiko kamioien ohiz kanpoko zirkulazioa izan da, legarra ateratzeko eta Nafarroako Ubidearen tarteune batean egiten dituen obretara eramateko, eta horren eraginez errepidea hondatu egin da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko urriaren 7an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Ultzaman, Odietan, Atezen eta Lantzen ur-murrizketarik egon ez dadin Gobernuak hartu dituen neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Ultzaman, Odietan, Atezen eta Lantzen ur-murrizketarik egon ez dadin Gobernuak hartu dituen neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Ultzaman, Odietan, Atezen eta Lantzen ur-murrizketarik egon ez dadin Gobernuak hartu dituen neurriei buruz. Hona Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

Toki Administrazioako Departamentuan ez dago jasota herri horietan ur-hornidurarekin loturiko arazorik izan dutenik. 2009an, departamentu honek erantzun zuen ez zegoela ur hornidurarekin loturiko arazorik ez Ultzaman, ez Anuen, ez Atezen, ez

Odietan, eta 2010eko udan ez da departamentu honetan jaso herri horietan hornidura arazorik egon denik, ez eta 2009an, 2008an eta 2007an ere, legegintzaldi honi buruzko aipamena egiteagatik.

Esan behar da Toki Administrazioiko Departamentuak baduela laguntza ekonomikoen plan bat halako egoerak gertatzen direnerako. Plan hori

315/2005 Foru Aginduak arautzen du eta horren bidez, zisternen bidezko hornidura behar duten toki entitateek horretarako diru-laguntzak jasotzen dituzte, eta, lehen esan den moduan, departamentuan ez dago jasota halako arazorik gertatu denik.

Iruñean, 2010eko urriaren 19an

Toki Administrazioiko kontseilaria: Amelia Salanueva Murguialday

Galdera, Bideko Autobiaren obra, itzaleko bidesariaren bidez finantzatu baita, eman ote den jakiteko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Bideko Autobiaren obra, itzaleko bidesariaren bidez finantzatu baita, eman ote den jakiteko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 1eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko Bideko Autobiaren obra eman ote den eta emakidaren salmenta kontratu bidez araututa dagoen. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Kontratuaren 41. klausulan aurreikusten denez, emakidaren kontratua amaitu eta hurrengo hilabetean eman behar da obra.

Bestalde, sozietate emakida-hartzaileak dituen akzioen salmentari buruz, kontratuaren 9. klausula lehen lerrokadan ondokoa ezartzen da:

“Sozietate emakida-hartzailearen akzioak izendunak izanen dira, eta ezin izanen da titulu horien izaera aldatu emakidak irauten duen bitartean. Akzioen erregistroaren kalterik gabe, sozietatearen zuzendaritza organoek 15 eguneko epean jakinarazi beharko diote Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari akzioen hasierako titulartasunean gertatzen den edozein aldaketa.”

Zehaztu behar da, akzioen salmentaren kasuan, sozietate emakida-hartzaileak bere nortasun juridikoa gordeko duela eta Administrazioarekin dituen kontratu-eskubide eta –betebehar berak izaten jarraituko duela.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko urriaren 18an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Nazio Batuen Erakundearen GAP (Global Action Plan) Programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nazio Batuen Erakundearen GAP (Global Action Plan) Programari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 1eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko non eta noiz aplikatu duen Nafarroako Gobernuak Nazio Batuen Erakundearen GAP (Global Action Plan) programa (PES 619). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak ez du aplikatu Nazio Batuen Erakundearen GAP programa Nafarroako Foru Komunitatean, une honetan aplikatzeko aukera aztertzen ari bada ere. Dena den, esan behar da programa horrek proposatzen dituen ekimenen oso antzekoak abian direla jada.

GAP (Global Action Plan) programaren helburua da CO2ren emisioak murriztea, horiek baitira klima aldaketaren eragile nagusiak, eta ohitura iraungarriagoak hartzea uraren eta energiaren kontsumoa, mugikortasuna edo etxeko hondakinen kudeaketa bezalako alorretan. UNESCOk eta PNUMAk babestutako programa da. Espainian, Plan de Acción Global para la Tierra elkarteak sustatu eta programa horretako nazioarteko idazkaritzak babesten du. Hezkuntzaren arloko tresna eta material desberdinak proposatzen ditu kanpainen hartzailerekin lan egiteko, zeinak baitira etxeak, eskolak, bulegoak eta gidariak.

Nafarroan, lan hori bideratzen ari da Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuarekin lotura duen Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroak (CRANA) sustatutako ekimen desberdinen bidez. Hona hemen horietako batzuk:

Etxeak:

Ekimenak Kioto Etxeak izena du:

2006an, Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroak (CRANA) Kioto Etxeak izeneko programaren lehen edizioa jarri zuen abian. Harrezkero, Nafarroako 600 etxek baino gehiagok hartu dute parte klima aldaketa geldiaraztea helburu duen programa horretan, eta, ohitura iraungarriagoak hartzearen ondorioz, CO2 emisioak eta energiaren kontsumoa murriztu dituzte.

Kioto Etxeak programan tailerrak egiten dira, ondoko gaiez hitz egiteko: Zer da klima aldaketa? Zer egin dezakegu geldiarazteko? Nola aurreztu ahal dugu energia gure etxeetan? Zein tenperaturan jarri behar dugu berogailua? Zergatik da ona kontsumo apaleko lanparak erabiltzea? Zer neurritan behar izaten dugu autoa? Zer da kontsumo arduratsua?

Programan zehar "Kit Kioto" delako bat ematen zaie parte-hartzaileei, ondokoez osatua: ura aurrezteko gailuen joko bat, termometro bat, erregeleta bat, bidezko merkataritzako produktu bat eta produktu ekologiko bat, eta, azkenik, energia aurrezteko aholku eta gomendioak jasotzen dituen eskuliburu bat. Produktu horiek lagungarriak dira eraginkorrako izateko eta modu arduratsukoan kontsumitzeko. % 5,5 eta % 6 bitarteko kontsumo-murrizketak lortzen dira. Bada webgune bat –<http://hogareskioto.crana.org/seccion/presentacion>– informazio ugaria eskaintzen duena eta, gainera, familien kontsumoen kontrola eta jarraipena egiteko bidea ematen duena. Programa Espainia-ko etxe berdeen sare batean sartuta dago.

Eskolak

CRANAren ikastetxeetarako programa hiru azpiprogramatan egituratuta dago: Energia eta Klima Aldaketa; Ura, eta Kontsumoa.

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren lankidetzan Nafarroako Energia Planaren bidez gauzatzen ari da; izan ere, plan horrek sustatzen du ikastetxeek parte har dezaten energia aurreztearen eta eraginkortasun energetikoaren arloan.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren lankidetzan modu esplizituagoan gauzatzen ari da ikasturte honetan, Climaescuela proiektu berria jarri baitu abian.

Hezkuntza Departamentuaren lankidetzan gauzatzen da ikastetxeek ekimen horietan parte har dezaten sustatuz, irakasleen prestakuntzarako

mintegi bana antolatuz eta ekainean egiten den azken topaketa hartuz.

Energia eta Klima Aldaketari buruzko azpiprograma da zaharrena. 2004-2005 ikasturtean jarri zen abian, eta, 2010-2011 ikasturtean, aurreikusiten da 20 ikastetxek parte hartzea; horietatik, 8 Lehen Hezkuntzakoak dira, 9 Bigarren Hezkuntzakoak eta 3k Lehen eta Bigarren Hezkuntza daukate.

Programa honetan, parte hartzen duten ikastetxeek hiru motatako ekintzak gauzatzen dituzte:

– Kontsumoa kontrolatu eta murrizteko ekintzak, alde aurretik auditoria energetiko bat eginda.

– Energiaren gaia curriculumeko arlo desberdinetan integratzeko ekintzak

– Beste sentsibilizazio ekintza batzuk

Azpiprograma honek, halaber, mugikortasun iraugarria sustatzen du, mugikortasun planen eta Lehen Hezkuntzako “eskola bideak” deiturikoen bidez.

Ikasturte honetako berritasunetako bat da energia aurrezteari eta efizientzia energetikoari buruzko lehiaketa bat, Lehen Hezkuntzako ikastetxetan, alde batetik, eta Bigarren Hezkuntzakoetan, bestetik, egin dena.

Jarduera horiek guztiak egiteko, CRANaren aholkuak eta laguntza teknikoa balia ditzakete.

Uraren azpiprogramak Uraren Foro Gaztea izena du. Horren helburua da ikastetxeetako ikasleei eta irakasleei Uraren Esparru Zuzentarauan jasotako balioak transmititzea. Zuzentzarau horrek defendatzen du gure ibaietako egoera ekologiko ona lortu eta mantentzea, ura modu arduratsuan erabiltzea eta parte-hartze publikoa.

Parte hartzen duten ikastetxeek gauzatzen dituzten curriculumeko jardueretan uraren gaia lantzen da, jakintzagai desberdinen ikuspuntutik aztertu beharreko eduki gisa, eta, halaber, ikasge-laz kanpo egiteko jarduerak ere antolatzen dituzte, hala nola bisitak ibaira eta zenbait instalaziotara (araztegiak eta abar), eta bestelako sentsibilizazio-jarduera batzuk.

Ikasturte honetako parte-hartzeari dagokionez, kopurua jakinen da izen emateko epea amaitzean.

Kontsumoari buruzko azpiprogramak Ekoagoa, mesedez izena du. Nafarroako Nekazaritza Ekolo-

gikoaren Kontseiluarekin lankidetzan egiten da, eta haren xedea da produktu ekologikoen kontsumoa sustatzea ikastetxeetako jantokietan. Horretarako, gurasoen elkarteetan eta catering enpresen konpromisoa bilatzen da.

CRANAK jartzen dituen beste baliabide batzuk

- Erakusketak:

Energiak batuz klima aldaketaren aurrean

Pedalkadak iraunkortasunerantz

Ura orekan

- Antzezlanak

Energiaren gaiarekin zerikusia duten 3 antzezlan

- Lan bulegoak

Enpresa txikiei eta ertainei laguntzeko programan gai hori aztertzen da. Orain arte, 360 enpresa txiki eta ertainetan eta 3 industrialdetan esku hartu da.

- Gidatze efizientea

Duela 3 urte baino gehiago hasi ginen ikastaroak antolatzen autoen eta ibilgailu industrialen gidarientzat, Energia Planaren esparruan. 2500 lagunek hartu dute parte ikastaro horietan.

- Bestelako ekimenak, erakunde publikoei eta pribatuei zuzenduak (enpresak, herritarren elkarteak, eta abar)

Energia Apustuak

Entitate batek (administrazio publikoa, enpresa pribatua, herritarren elkarteak eta hezkuntzaren sektorea) apustu bat egiten du eta konpromiso publikoa hartzen du kontsumoen murrizketa, baliabideen erabilera efizientearen hobekuntza eta CO₂ko emisioen murrizketa ekarriko dituen ekintza bat gauzatzeko. Urtebete igaro ondoren, entitateak hartutako konpromisoa bete badu, aitortza publikoa eginen zaio; helburua ez badu lortzen, apustua egin duen entitateak ingurumen arloko praktika on bat egin beharko du.

Hori jakinarazten dut Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko urriaren 19an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, baztertzailleak diren edo pertsonen duintasuna urratzen duten publizitate-edukiak hedabide sozialetan argitaratzearen aurkako neurriak sustatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Javier Monzón Romé jaunak galdera egin du baztertzailleak diren edo pertsonen duintasuna urratzen duten publizitate-edukiak hedabide sozialetan argitaratzearen aurkako neurriak sustatzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 1eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Javier Monzón Romé jaunak galdera egin du baztertzailleak diren edo pertsonen duintasuna urratzen duten publizitate-edukiak hedabide sozialetan argitaratzeari buruz (PES 625/10), eta, zehazki, departamentu honi dagozkion jarduketari buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariaren erantzuna:

Monzón Romé jaunak, gai hori dela eta, honako galderak planteatu ditu:

1.- Zure departamentuak egin al du sentsibilizazio kanpainarik, ez dadin prostituzio-jarduna normalizat onar tolerantziaren bidez edo/eta hedabideetan iragarkiak jarrita? Kanpainarik egin baldin badu, adierazi datak, kanpainen izena, emaitza, ebaluazio-urkila eta zure departamentuak gai horretan egindakoari buruzko informazioa lortzeko balio duten datu guztiak.

Nafarroako Berdintasunerako Institutua Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari atxikitako erakunde autonomo bat da. Bere eskumenen esparruan eta 2006-2010 urteetarako Nafarroako Foru Komunitateko emakumeentzako eta gizonezkoentzako aukera berdintasunaren lehen planaren esparruan, aldizka gizarte sentsibilizazioko kanpainak egiten ditu emakumeen aurkako indarkeria dela eta. Kanpaina horietan, indarkeria matxistaren edozein adierazpenen aurkako –besteak beste, prostituzioaren aurkako– errefusa nabarmentzen da.

Jarraian deskribatzen dira Berdintasunerako Nafarroako Institutuak herritarrentzat eta profesionalentzat bultzatu dituen prestakuntza bidezko sentsibilizazio-kanpainak:

1. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko gogoeta-programa. Lan-programa hori 2008an hasi zen, eta guztiz zuzentzen zaio Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan esku hartzen duten profesionalen prestakuntzari. Prostituzioa da programa horretan zeharkako moduan aztertzen ari den esparruetako bat, berariaz landu zena “Prostituzioa: gizarte diskurtsoak, esku-hartze publikoak eta orientabideak” izeneko saioan. Saio hori Kualitate Lantaldea aholku-enpresak gidatu zuen, eta 2008ko apirilaren 3an egin zen, Baluartean; bertara, generoko indarkeriaren biktima diren emakumeekin arlo desberdinetan esku hartzen duten 90 profesional joan ziren.

2. Nafarroako Foru Administrazioako komunikazioaren arloko profesionali eta Nafarroako hedabideetako profesionali zuzendutako prestakuntza, “Berdintasunean oinarritutako komunikazio baten alde: emakumeak ikusezin bihurtzen dituen edo baztertzuten dituen hizkuntzaren ondorioei buruzko gogoeta” izenburupean. Saio hori 2009ko urriaren 19an eta 20an izan zen, Nafarroako Gobernuak Prentsa Aretoan, Mercedes Begoechea hizkuntzalari eta filologoaren gidaritzapean. 27 profesional bertaratu ziren.

3. “Irudia eta errealitate mediatikoa” izenburupeko mintegia, emakumeek komunikabideetan duten islari buruzkoa. Mintegi hori Nafarroako Unibertsitatean egin zen, aldizka, 2004an hasi eta 2008ra arte, eta bereziki zuzenduta zegoen komunikazioaren arloko profesionali.

Prestakuntzaren bitartezko sentsibilizazio-ekin-tza horiezaz gainera, Nafarroako Berdintasunerako Institututik prostituzioaren jardunaren normaltasunezko onarpena –tolerantziaren bidezkoa edo/eta hedabideetako publizitate-iragarkien bitartezkoa– deuseztatzearen aldeko sentsibilizazio jarduerak finantzatzen dira, urtero emakumeen elkarrekin eta irabazi asmorik gabeko beste entitate batzuentzat antolatzen duen diru-laguntzen deialdi publiko baten bitartez, jarduketa horiek emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna lortzeko ekarpen bat direlakoan. Zehazki, 2010ean, diru-laguntza bat eman zaio

Nafarroako Médicos del Mundo-ren “Sexu-esplotaziorako emakume-salerosketari buruzko jardunaldiak” izenburupeko proiektuari. Proiektu hori 2010eko urriaren 13an eta 14an garatu da, eta hedabideetan haren isla handia izan da. Ondoren zehaztuko ditugun edukiak izan ditu:

- 13an: “Sexu-esplotaziorako emakume-salerosketa” izenburuko dokumentala, haren zuzendari Mabel Lozano eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendaria bertan direla. Lekua: Iruñeko Golem zinemak. 50 pertsona bertaratu ziren.

- 14an: “Pertsonen salerosketa; egoera eta erronkak” izenburuko mahai-ingurua, bertan honakoak zirela: Nafarroako Berdintasunerako Institutuko ordezkariak, Médicos del Mundo-ko gizarteratze programen arduradun Ramón Estesos jauna eta APRAMPeko (Emakume prostituituen prebentziorako, gizarteratzerako eta laguntzarako elkarte) teknikari Laura Cotarelo andrea. Lekua: Civican. Irekia, nahi zuen ororentzat. 55 pertsona bertaratu ziren.

2.- Zure departamentuak parte hartzen al du sexu-salerosketaren aurka Estatuko, Europako nahiz nazioarteko erakundeek egindako kanpainetan? Hala baldin bada, adierazi zeinetan, noiz eta Nafarroan izandako emaitzak.

Ministroen Kontseiluak 2008an onetsitako “Sexu-esplotaziorako Gizaki Salerosketaren aurkako Planeko” 5. arloak berariazko jarduketa baten gisara jasotzen zuen salerosketaren aurkako foro baten sorrera. Foro hori administrazio publiko eskudunek, GKE-ek eta ukitutako beste erakunde batzuek osatuko zuten. Nafarroako Foru Komunitatea, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bitartez, eta Galiziako autonomia erkidegoa dira foro horretan autonomia erkidego guztiak ordezkatzeko dituztenak, 2009tik.

Aipatutako gizarte foro horrek bi bilera egin ondoren, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak beharrezkotzat jo du lan-talde bat sortzea Nafarroan emakume prostituituekin, esparru desberdinetan, plangintza lanetan eta esku-hartze lanetan diharduten antolamendu eta erakundeen artean. Talde horren xedea da gauzatzen ari diren zerbitzu, programa eta ekimenen ikuspegi bateratu bat edukitzea, koordinazio/deribazio protokoloak ezartzea eta antolamendu horien premiak eta erronkak ezagutzea, gizakien sexu-esplotaziorako salerosketari dagokionez.

3.- Zure departamentuak jarri al du salaketaren bat, segurtasun indarren edo Foruzaingoaren aurrean nahiz epaitegietan, pertsonen duintasunaren aurkakoa izateagatik publizitate ez-zilegia

inork egin izanaren berri emateko? Zenbat? Zein egunetan? Zer emaitza lortu du horrela?

Nafarroako Berdintasunerako Institutuak herri-tarren eskura jartzen du sexu-arrazoiengatik bazterkeria-egoeren aurreko salaketak egiteko zerbitzu bat. Batzuetan, kexek edo/eta salaketek zerikusia izaten dute publizitate sexistak, baztertzaille edo/eta pertsonen duintasunaren aurkakoarekin. Beste batzuetan, salaketak lotuta egoten dira enpleguaren arloko, baliabideak eskuratzearen arloko eta beste arlo batzuetako jokabide sexistak edo baztertzailleekin.

Publizitateari dagokionez, honako jarduketa-protokoloa dago:

1. Emakumeentzat baztertzaille den publizitateari buruzko salaketa jaso.

Sexista izateko aztarnak dauzkan publizitate bat ezagutzen duen pertsona orok Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren esku-hartzea eska dezake, Informazioaren eta Programen Atalaren bitartez.

Salaketa honako hauek egin dezakete:

- Nafarroako Gobernuaren egituraren sarturiko antolamendu edo erakunde batek.

- Nafarroako Gobernuaren egituraren sarturik ez dagoen antolamendu edo erakunde batek.

- Pertsona anonimo batek, zuzenean nahiz zeharka ukituta egon daitekeena.

- Nafarroako Berdintasunerako Institutuak berak.

2. Balizko publizitate sexistako kanpainako materialak eta datuak jaso.

3. Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren Publizitate Sexistari buruzko Balorazio Batzordea eratu. Honakoek osatzen dute, hain zuzen:

- Berdintasun Politiken Plangintzako eta Kudeaketako zuzendariordea.

- Informazio eta Programen Ataleko burua.

- Informazio eta Programen teknikariak.

4. Balorazio Batzordeak salatutako kanpaina aztertu.

5. Idatzizko ebazpena, non baloratuko baita emakumeen aurkako diskriminaziorik ba ote dagoen.

6. Prozedurak bi esku-hartze mota zehazten ditu, honakoen arabera:

- Kanpainaren ardura duen erakundea Nafarroako Gobernuaren egituraren integratuta badago,

Balorazio Batzordearen ebazpena idatziz helarazten zaio. Kasua bada, publizitatea berehala erretiratzeko exijitzen zaio, hala erabakiz gero.

– Kanpainaren ardura duen erakundea Nafarroako Gobernuko egituran integratuta ez badago (enpresa pribatuak, gizarte-erakundeak eta abar), Nafarroako Berdintasunerako Institutuak dagokionari idatziz helaraziko dio salaketa bat dagoela, publizitatea diskriminatzailea izateari buruzkoa, eta Balorazio Batzordeak salaketa izapidetu eta ebazpen bat emanen duela. Publizitate sexista erretiratzeko gonbita eginen du.

Nafarroako Berdintasunerako Institutuak salaketa Emakumeen Irudiaren Behatokiaren bitartez izapidetuko du. Erakunde hori Berdintasun Ministerioako Emakumearen Institutuaren menpekoa da.

7. Nafarroako Berdintasunerako Institutuan publizitate sexistari buruzko salaketa egin zuen pertsonari edo entitateari hari buruzko ebazpena idatziz helarazi.

Emakumeen Irudiaren Behatokiari buruzko informazioa eman, entitate edo pertsona horiek publizitatea zuzenean sala dezaten haren aurrean, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak salaketa egiteaz gainera.

8. Espedientea Nafarroako Berdintasunerako Institutuan artxibatu, bere material guztiekin.

Azken urte hauetan, publizitate sexista edo baztertzaileri buruzko honako salaketak jaso, aztertu eta izapidetu dira:

– 2007: Barruko arropako marka ezagun batek abian jarritako publizitate-kanpaina bat salatu zen. Honako euskarria erabili zen: irudien eta testu-modalitate desberdinen konbinazio bat, guztiak ere berdin diskriminatzaileak, eta hori guztia autobus markesinetan eta ohiko tokietan banatu zen.

Nafarroako Berdintasunaren Institutuak kanpaina hori Emakumeen Irudiaren Behatokian salatu zuen. Nafarroako Berdintasunaren Institutuak eginitako salaketari beste salaketa batzuk gehitu zitzaizkion, Behatokiak daukan webgunearen bitartez partikularrek eta arlo desberdinetako profesionalak aurkeztuak.

Emitza berehalakoa izan zen: salaketak aurkeztu eta egun gutxitara erretiratu zen kanpaina.

– 2008. Zaragozan ezarrita dagoen altzarien arloko multinazional batek abian jarritako publizitate-kanpaina bat salatu zen. Kanpainak gizonezkoak bultzatzen zituen beren emazteekin erosketak egitera joateko, eta erakusten zuen nola emakumeek erosketak egiten zituzten bitartean, gizonez-

koek futbola ikusten zuten beren adiskide, bufanda eta garardoekin.

Nafarroako Berdintasunerako Institutuak, salaketan aipatutakoa Zaragozan ezarritako enpresa bat zenez, Aragoiko Emakumearen Institutuari eman zion egitatearen berri eta salaketa helarazi zion Estatuko Emakumeen Irudiaren Behatokiari.

– 2009. Sanfermin jaietan, Iruñeko Zabalguneko taberna batean ogitartekoak oso era lohian iragartzen ziren, zerbitzari gizonezkoen eta haien atributuen "ontasunak" iragartzen zituzten bitartean.

Nafarroako Berdintasunaren Institutuak txosten bat helarazi zion establezimendu horri, eta herritar anonimo batek udaltzaingoan aurkeztutako salaketaren jarraipena egin zen. Iragarkia berehala erretiratu zen.

– 2010. Sanferminetan, berriz ere, Iruñeko diskoteka ezagun batek bere publizitatean prezio desberdinak iragartzen zituen mutilentzat eta neskentzat. Nafarroako Berdintasunerako Institutuak, herritar baten salaketaren bitartez, txosten bat egin zuen, eta hura Nafarroako Gobernuko Familia eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiko Kontsumo Zerbitzura igorri zuen, hura baita egitate horiek zehatzeko organismo eskuduna.

Organismo horrek zehapen espedientea ireki zuen diskoteka horren aurka, eta une hauetan espedientea izapidetzen ari da.

4. Egin al du Nafarroako Berdintasunerako Institutuak nahiz zure departamentuak berak txostenik edo/eta azterlanik prostituzioaren fenomenoak Nafarroan duen hedadurari buruz?

Berriki, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak azterlan soziologiko bat egin du Nafarroako emakumeen egoera sozialaren bilakaerari buruz, beste batzuetan (2003an eta 2005ean) egin duen bezala. Azterlan hori argitaratzeko xedez berrikusten ari dira. Azterlan horretan, kapitulu berezi bat dago emakumei eta gizarte-bazterkeriari buruz, eta haren barruan, atal bat ageri da zaugarritasun sozialeko egoeran dauden emakumei buruz, non prostituzioaren egoera aipatzen baita, Nafarroari dagokionez.

Informazio horretan, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruko prostituzioari buruzkoan, besteak beste, Gizarte Gaietako eta Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiko Nafarroako gizarte bazterkeriaren egoerari buruzko diagnosiaren zirriborroaren informazio kuantitatiboa ageri zen.

Bestalde, Gizarte Gaietako eta Garapenerako Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiak, Nafarroan 2011-2014 urteetan Gizarte Bazterkeriaren aurkako Planaren barruan, azterlan monografiko bat egin zuen Nafarroan prostituzioan jarduten duten pertsonen buruz, ulertuta pertsona horiek bazterkeria-faktore batzuk pairatzen dituztela, gehienetan,

gizarte-bazterkeriako egoeran edo hartan egoteko arriskuan jartzen dituztenak. Azterlan hori Alter taldeak egin zuen.

Iruñean, 2010eko urriaren 21ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, 117/2010 Foru Aginduaren bidez hezkuntza itunak aldatu eta/edo luzatzean Hezkuntzako kontseilariak Ikuskapen eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiaren eskumenak bere gain hartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du 117/2010 Foru Aginduaren bidez hezkuntza itunak aldatu eta/edo luzatzean Hezkuntzako kontseilariak Ikuskapen eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiaren eskumenak bere gain hartzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 1eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru-parlamentariaren elkarteari atxikitako foru-parlamentari Ana Figueras Castellano andreak idatzizko erantzuna jasotzeko galdera bat egin du (PES-00622) hezkuntza-itunei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Arartekoak Tuterako “Compañía de María” ikastetxearen egoerari buruz eginiko azken idazkia ezagututa, eta Ikuskapenaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiarekin ados jarrita, itunak berritzea ebatzi zen.

Aukera hori aurreikusita dago goragokoak eskumena bereganatzeko teknikaren bitartez, bai Estatuko oinarritzko legeetan (Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 14. artikulua), bai foru legeetan ere (Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko Foru Legeko 38. artikulua).

Bere idazkian, Nafarroako Arartekoak Hezkuntza kontseilariari eskatu zion azter zezala “Compañía de María” ikastetxean matrikulatu nahi zuten ikasleen gurasoaren borondatea betetzeko aukera (23 haur ziren guztira), eta laugarren lerroa irekitzeko baimena eman zezala berriz ere (aurreko ikasturtean bezala), zeren eta Arartekoak uste baitzuen egoera “apartekoa dela eta Compañía de María ikastetxeari mugatua.” Nafarroako Arartekoak argudio gisa aipatzen zuen ezen kasu hori zela, berak ikusitakoetatik, guraso batzuek kezka eta interes gehien erakutsi duten kasua, beren seme-alabak haiek nahi duten heziketa erlijioso eta moralari erantzunen dion ikastetxe batean onartuak izateko.

Jakitera ematen dizut kasu guztietan, “Compañía de María” ikastetxeko 3 urteko ikasgelaren kasuan izan ezik, adierazitako arrazoiarengatik, 117/2010 Foru Aginduan ezarritakoa bat datorrela Hezkuntza Ikuskaritzaren txostenekin.

Halaber, jakitera ematen dizut guztira itundutako 3 urteko ikasgeletan bat gutxiago dagoela 2009-2010 ikasturtean baino. Kontuan hartu beharra dago guztira ituntzen diren unitateen guztizkotik batzuk aldi baterakoak direla, “Compañía de María” kasuan bezala, eta hori mantendu edo aldatu ahal dela premien arabera, eta behin betikoak ez diren ikasgelen kopuru horrek ere behera egin duela 2009-2010 ikasturtearekin alderatuta.

Egindako bigarren galderari dagokionez, eskatutako txostenak helarazi dira.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betez.

Iruñean, 2010eko urriaren.

Hezkuntza kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Familiei Laguntzeko Foru Lege proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Familiei Laguntzeko Foru Lege proiektuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 10eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Familiei Laguntzeko Foru Lege proiektua zertan den jakiteko (PES 602/10). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Familiei Laguntzeko Foru Lege proiektuaren egoerari dagokionez, esan behar da Familiei Laguntzeko Foru Legearen oinarri izanen den dokumentua lantzen aritu garela orain arte, horretarako azterlanen eta legeen bildumak baliatuta. Dokumentu hori izanen da aipatu legearen zirriborroa prestatzeko oinarria.

Bestalde, departamentuarterko bi batzorde osatzeko lanean ari gara, bata zuzendaria eta bestea teknikoa, aipatu legea prestatu eta idatz dezaten, departamentuak koordinatuta; izan ere, lege horrek Gobernuko zenbait departamenturen parte-hartzea eskatzen du. Halaber, lan-taldeak antolatzeko ere ari gara familien elkarteekin eta gainerako entitate interesdunekin.

Iruñean, 2010eko urriaren 25ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, CCOOri eta UGTri zuzenean nahiz “VITRA Cooperativa de Viviendas” eta “Plazaola Gestión Integral, S.L.” enpresen bidez emandako etxebizitza babestuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du CCOOri eta UGTri zuzenean nahiz “VITRA Cooperativa de Viviendas” eta “Plazaola Gestión Integral, S.L.” enpresen bidez emandako etxebizitza babestuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 1eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du etxebizitzari buruz. Hona hemen Lurraldearen

Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.- Zenbat etxebizitza babestu egitea esleitu zaie CCOOri eta UGTri zuzenean nahiz “VITRA Cooperativa de Viviendas” eta “Plazaola Gestión Integral, S.L.” enpresen bidez? Zenbat etxebizitza atera dira egiaz sustapen horietatik? Eman abian diren sustapenei buruzko informazioa ere.

Ez da erraza interpretatzea zer esan nahi duen parlamentari jaunak “etxebizitza babestuak egitea esleitu” esaten duenean. Ulertzen dugu jakin nahi duela zein den Nafarroako Gobernuak sindikatuei besterendutako lur-azalera. UGT eta CCOO sindikatuekin 2001ean sinatutako hitzarmenaren ondorioz, Gobernuak 1.211 etxebizitza egiteko lurzorua besterendu du; etxebizitza horietatik, 602 UGTri loturiko sustatzaileek kudeaturiko kooperatibei dagozkie eta 609, berriz, CCOO sindikatuari loturiko sustatzaileek kudeaturiko kooperatibei. Horietatik guztietatik, 90 etxebizitzako sustapen bat

bakarrrik dago eraikitze bidean. Urte horietan, hau da, 2001etik orain arte, guztira 69.506 etxebizitza hasi dira Nafarroan, eta 63.370 amaitu dira.

2.- Zenbat diru eman zaie xede horrekin CCOOri eta UGTri zuzenean nahiz "VITRA Cooperativa de Viviendas" eta "Plazaola Gestión Integral, S.L." enpresen bidez?

Etxebizitza babestuen sustatzaile diren aldetik jaso dituzten diru-laguntzak dira araudi orokorrean sustatzaile guztientzat ezarritako berberak. CCOO sindikatuari loturiko sustatzaileek kudeaturiko kooperatibek 1,02 milioi euro jaso dituzte, bioklimatismo edo ziurtapen energetikoen kontzeptuagatik. UGT sindikatuari loturiko sustatzaileek kudeaturiko kooperatibek, kontzeptu berarengatik (bioklimatismoa eta ziurtapen energetikoa), 1,12 milioi euro jaso dituzte.

3.- Zein da etxebizitza horien batez besteko prezioa? Zer alde dago Vinsak sustatutakoekin konparatuta?

Etxebizitza babestuek badute gehieneko prezio bat, urtero onesten den modulu ponderatuaren arabera kalkulatzeko dena, etxebizitzaren azalera erabilgarria kontuan hartuta. Normalean, sustatzaileek (sindikatuak eta Vinsa barne) gehieneko prezio hori kobratzen dute.

4.- CCOOri eta UGTri zuzenean nahiz "VITRA Cooperativa de Viviendas" eta "Plazaola Gestión Integral, S.L." enpresen bidez esleitutako etxebizitza babestuen zer ehunekori egiten zaio jarraipen eta ikuskapen publikoa?

% 100ari.

Iruñean, 2010eko urriaren 26an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako kontseilaria: Amelia Salanueva Murguialday

Galdera, farmakoak garatzen jardunen duten hamar bat enpresa sortu izateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du farmakoak garatzen jardunen duten hamar bat enpresa sortu izateari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko urriaren 15eko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urriaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak informazioa eskatu du farmakoak garatzen jardunen duten hamar bat enpresa sortu izatearekin lotutako zenbait gairi buruz (PES-628/10). Hona hemen Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

2010eko urriaren 14an, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilari José María Roig Aldasoro jaunak Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru par-

lamentari Asun Fernández de Garaialde andreak 2010eko irailaren 16an eginiko 7-10/PEI-00233 informazio-eskariari erantzun zion. Informazio-eskari hartan, "Sodena enpresa publikoak sartutako Nabio izeneko proiektuarekin lotutako edozein proiektu, aurreproiektu edo dokumenturen kopia bat" bidaltzeko eskatzen zen.

Dokumentu horretan aurki daitezke Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro eginiko galdera gehien erantzunak. Hala eta guztiz ere, hurrengo puntuei dagokienez informazioa zabalduko dugu:

1. 1. Ekoitziko diren farmakoak zehaztu.

Nabioren helburua da Nafarroako bioteknologiako enpresetan inbertitzea. Une hauetan, ezin dira zehaztu ekoitziko diren farmakoak, zeren eta Nabiok ezarritako protokoloak determinatzen baitu molekulen zerrenda pixkanaka sortzen joan dela, eta behin funtsa eratuta, aurreikusten da farmakoak lortzeko molekulak garatzea, eta ez zuzenean azken hori.

2. Zer enpresatan inbertitzeko asmoa dagoen: enpresen izena.

Gaur den egunean, eta ikusita funtsa oraindik ere ez dela eratu, ezin zaio galdera horri erantzun.

3. Horietako bakoitzean inbertitu nahi den zenbateko xehatua.

Gaur den egunean, eta ikusita funtsa oraindik ere ez dela eratu, ezin zaio galdera horri erantzun. Bai adieraz daiteke zenbatekoa "pipe-line" delakoa osatzen duten molekulen kopuruaren eta izaeraren arabera izan dela.

4. Akzioak saltzeko aurreikusitako data.

Logikoa denez, sozietaterako aldekoena den unean.

5. Saldu nahi diren akzioen bolumena.

Aurreko gogoeta alde batera utzita, gehitu daiteke Sodenak kanpoko finantziazioa lor dezakeela Nabio Plana betetzeko.

6. Zer kontabilizazio izanen du salmenta horrek Nafarroako aurrekontu orokorretan?

Galderak aukera bat aurruposatzen du, alegia, egiaz akzioen salmenta gertatzea. Gaur-gaurkoz, ordea, ezin da halakorik baieztatu. Operazioak, kasua bada, ez luke zuzeneko eraginik izanen

Nafarroako aurrekontu orokorren kontabilitatean, sozietatearen beraren kontabilitatean baizik.

7. Zer da Nabio? Zer helburu ditu?

Nabio sektore biofarmazeutikoa Nafarroan sendotzeko plan estrategiko bat da, 300 orri baino gehiagotan jasota dagoena. 2. eta 3. erantzunetan adierazi bezala, funtsa oraindik ere eratu gabe dago. Dagoen borondatea da Sodenak kudeaketan parte har dezala.

8. Nork kudeatuko du Nabio izeneko arrisku-kapitaleko funtsa?

Inork ez, zeren eta ez baita existitzen arrisku-kapitaleko aipatutako funts hori.

9. Ba al du Nafincorekiko kontraesanik edo bateraezintasunik?

Sodenaren xede soziala eta Nafincorena desberdinak dira eta, gainera, Nafincok ez du jarduten Nafarroako garapen-jarduerak sustatzen dituzten arrisku-kapitaleko arloetan.

Iruñean, 2010eko urriaren 29an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro